

ESPAINIAR KONSTITUZIOAREN 155.


ARTIKULUAREN APLIKAZIOA

KATALUNIAN

EAZ + Zuzenbidea

2021-2022 ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ikaslea: Uxue García Califano

Irakaslea: Eneko Compains Silva



Bilbon, 2022ko otsailaren 14an

Aurkibidea

1. SARRERA	2
2. HELBURUAK	2
3. MARKO TEORIKOA: ESTATU AUTONOMIKOA ETA KOERTZIO ESTATALA	3
3.1. ESPAINIAKO ESTATUAREN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN KONFIGURAZIOA KONSTITUZIOAN	3
3.2. ALEMANIAKO EREDUARI BEGIRADA BAT. BONN LEGEA ETA KOERTZIO FEDERALA. .10	
3.3. ESPAINIAKO KOERTZIO ESTATALA: ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 155. ARTIKULUA. EZBERDINTASUNAK ALEMANIAKO BONN LEGEAREN 37. ARTIKULUAREKIKO.....	14
3.4. ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 155. ARTIKULUAN SAKONTZEN	16
3.4.1. <i>Definizioa eta oinarrizko printzipioak</i>	16
3.4.2. <i>Egitatezko kasuak: obligazioak ez betetzea eta interes orokorraren aurka egitea</i> 19	
3.4.3. <i>Koertzio neurriak: aplikazio prozedura</i>	23
3.5. ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 155. ARTIKULUAREN BALIZKO KONSTITUZIO KONTRAKOTASUNAZ	26
3.5.1. <i>Egitatezko kasuen balizko konstituzio kontrakotasuna: erabaki politikoa</i>	26
3.5.2. <i>Koertzio neurrien balizko konstituzio kontrakotasuna: printzipioak ez errespetatzea</i> 28	
4. ANALISI PRAKTIKOA: EKREN 155. ARTIKULUAREN APLIKAZIOA KATALUNIAN	30
4.1. IBILBIDE KRONOLOGIKOA ETA JURISPRUDENTZIAREN ANALISIA	30
4.2. EKREN 155. ARTIKULUAREN APLIKAZIO MOMENTUA	34
4.2.1. <i>Betekizun formalak</i>	35
4.2.2. <i>Betekizun materialak: ezarritako neurriak</i>	39
4.3. KONSTITUZIO KONTRAKOAK DIREN EKINTZAK	41
4.3.1. <i>Formazko ez-betetzeak</i>	41
4.3.2. <i>Ez-betetze materialak</i>	43
4.4. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN ERANTZUNA: 89/2019 ETA 90/2019 SENTENTZIAK	49
5. ONDORIOAK	57
6. BIBLIOGRAFIA	59

1. Sarrera

Lan honetan azken urteetan hain entzutetsua izan den Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua analizatu burutuko da, lehenik eta behin azalpen doktrinal bat aurkeztuz, eta ondoren, Kataluniako prozesu independentistaren baitan eman zen aplikazioa aztertuz.

Egunerokotasun handia duen gai hau hautatu dut Espainiako Estatuak izan duen arazo konstituzionalik nagusia baita, 1978. urtean Konstituzioa sortu zenetik 2017. urtean sortutako Kataluniako prozesu eratzailerara arte ez baitzen inoiz aplikatu. Gainera, aplikazio honek eztabaida intelektuala eragin zuen, doktrinak kontrako iritziak aurkeztu baitzuten. Horretaz gain, artikulua honen aplikazioak gertakari larriak eragin zituen, horien epaiketak denboran luzatu zirelarik, Konstituzio Auzitegiak inoiz kaleratutako ebazpenik luzeenak eman zituelarik, bai eduki sustantiboari dagokionez bai formari dagokionez.

Amaitzeko, aipatzekoa da artikulua honen aplikazioa azkenengo urteetan nortasun propioa duten Autonomia Erkidego batzuen autonomia nahiei erantzuna emanez aplikatu izan dela, Autonomia Erkidego horien herritarren erantzuna Espainiako Estatu Bateratuaren izaeratik aldentzea izan delarik.

2. Helburuak

Lan honen bitartez lortu nahi diren helburuak bi taldetan banatu daitezke; alde batetik, EKren 155. artikulua azalpen teorikoari buruzkoak, eta bestetik, Kataluniako prozesu independentistaren baitan artikulua honen aplikazioari buruzkoak.

EKren 155. artikulua azalpen teorikoari dagokionez, lehenik eta behin lanaren helburua Espainiako Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen konfigurazioa aztertzea da, autonomia printzipioan oinarritutako eskumenak definituz. Horren ostean, eskumen gatazkak konpontzeko ez-ohiko bidea den koertzio estatalaren figura aztertuko da, hura oinarritzen den Alemaniako Bonn Legearen 37. artikuluaekin konparatuz eta ezberdintasunak definituz.

Ondoren, EKren 155. artikulua literaltasunari buruzko analisia egingo da, egitatezko kasuak identifikatuz eta horietatik ondorioztatzen diren koertzio neurriak definitzen, edo behintzat, irizpide teorikoak ezartzen saiatuz. Amaitzeko, koertzio estatalaren konstituzio analisia burutuko da, artikulua aplikazioak Espainiako Estatuaren batasun printzipioaren baitan dagoen Autonomia Erkidegoen autonomia printzipioarekin bat egiten duen edo ez ikusteko.

Kataluniako prozesu independentistaren baitan, lanaren helburua Autonomia Erkidego horretan EKren 155. artikulua aplikazioa aztertzea da, lehenik eta behin garapen kronologiko bat burutuz eta hura betetzeko betekizun formal zein materialak eta aplikatutako neurriak identifikatuz.

Amaitzeko, atal praktikoaren helburua EKren 155. artikulua Autonomia Erkidegoen nortasun propioaren garapenarekin bateragarria den edo ez aztertzea den heinean, artikulua aplikazio horren inguruko iritziak eta errekurtsoak aztertuko dira, amaieran, KAren sententziek ebatzitakoa ikertuz.

3. Marko teorikoa: Estatu autonomikoa eta koertzio estatala.

3.1. Espainiako Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen konfigurazioa Konstituzioan

Espainiako Estatu Estatu bateratu bezala eraikia izan da bere historia konstituzionalaren hasieratik. 1931. urteko Espainiako Errepublikaren Konstituzioa izan zen autonomiarako eskubidea lehen aldiz aitortu zuena, bere 1. artikuluko 3. parrafoan: *“La República constituye un Estado integral, compatible con la autonomía de los Municipios y las Regiones”*. Hala ere, eraketa hau ez da denboran zehar aldaezina izan, salbuespenezko momentu zailak egon baitira, zeintzuen bitartez ondorioztatu dezakegu Estatuaren lurralde antolaketa ez dela modu baketsu batean aurrera eraman. Izan ere, 1931. urteko Konstituzioaz geroztik, nabarmenekoak izan dira Espainiako Estatuaren eredu unitario eta zentralistak lurralde historiko batzuetan eragindako tentsioak, horien arteko ezaugarri historiko, politiko eta kultural ezberdinak direla-eta.

Albertí Roviraren (2018) aburuz, 1978. urteko Konstituzioak zehaztutako lurralde antolaketa berriaren bitartez bi helburu lortu nahi ziren: euren izaera propio eta

ezberdinaren gaineko kontzientzia zeukaten lurralde historiko batzuen autonomia nahiak asetzeari (batez ere Katalunia eta Euskal Herriarenak) eta deszentralizazio politikoaren bitartez Estatuaren egitura zaharrak erreformatu eta modernizatzea.

Espainiako Estatuaren izaera bateratua eta herritartasun eta eskualdeen autonomia eskubidearen existentziaren oinarria 1978. urteko Espainiako Konstituzioaren (hemendik aurrera EK) 2. artikuluan aurkitzen dugu: *“La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas”*, baita bere lehenengo xedapen gehigarrian: *“La Constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales. La actualización general de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía.”*. Artikulu horren oinarrian beraz, Navajas Laporteren (1983: 246) aburuz, nazio espainiarra bat eta bakarra delako ideia dago; hau da, herritartasun eta eskualde ezberdinen autonomia eskubidearen aintzatespena nazio espainiarraren batasun hautsiezinen baitan kokatzen da. EKren lehenengo xedapen gehigarriari dagokionez, autore honek berak dio autonomia bermatzeko klausula moduan ulertu daitekeela, zeina dagokion estatutuaren bitartez garatuko den.

Espainiar nazioaren eta herritartasun eta eskualdeen autonomiaren arteko harremana EKren VIII. Tituluan garatzen da, zeinetan Estatu Espainiarraren lurralde antolaketa zehaztu egiten da, oinarria 137. artikulua izanik: *“El Estado se organiza territorialmente en municipios, en provincias y en las Comunidades Autónomas que se constituyan. Todas estas entidades gozan de autonomía para la gestión de sus respectivos intereses”*.

Titulu horren barnean, III. Kapituluaren Estatu Espainiarraren eta Autonomia Erkidegoen (hemendik aurrera, AAEE) arteko eskumen banaketa azaldu egiten da. Kapitulu horren arabera, EKren 148, 149 eta 150. artikuluek dira banaketa hori mugatzen dutenak. Honi jarraiki, Espainian jarraitzen den eskuduntza sistema sistema germaniarra edo zerrenda bikoitzeko sistema deritzona da, zeinak alde batetik Espainiar Estatuaren eskumen eskusiboko gaiak zehazten dituelarik eta bestetik, ente deszentralizatuaren eskumeneko gaiak izan daitezkeenak.

Hala ere, Garrido Mayolek (2003) adierazten du errealitatean EKK aldarrikatzen duen eskuduntza sistema ezaugarri bereziak dituen sistema hirukoitza dela, ezberdintzen direlarik: Espainiako Estatuaren eskumen eskusiboak (EKren 149. artikuluan), AAEEek bereganatu ditzaketen eskumenak (EKren 148. artikuluan) eta gainerako eskumenak, horien ahalmena (oinarrizko legegintza, garapen legegintza, ahalmen osoa...) edo materia Estatuaren eskumen eskusiboko gaitzat hartu ez diren heinean, AAEEek, euren estatutuetan adierazita, bereganatu ahal dituztelarik (EKren 149.3 artikuluan).

Aipatu moduan, EKren 148.1 artikulua AAEEek eskumena bereganatu ahalko luketen materien zerrenda erakusten du. Hasiera baten, Garrido Mayolen hitzetan, AAEEek ezin zuten EKren 149. artikulua Estatuaren eskumen eskusiboko gaitzat hartzen dituen materien gaineko eskuduntza zein 148. artikuluan espresuki definitzen ez diren materien gaineko eskuduntza garatu. Hala ere, gaur egun baieztatu daiteke AAEEek atxikitzen zaizkien eskumenak baino eskumen gehiago bereganatuta dituztela.

Artikulu honek bi ideia garatzen ditu. Alde batetik, borondatezkotasun printzipioa; ez baita beharrezkoa AAEEek bertan zehaztutako eskuduntzak bereganatzea. Beste alde batetik, denbora muga; 2. parrafoak adierazten baitu AAEEek, estatutuak indarrean sartzen direnetik 5 urtera, horien gaineko erreformaren bitartez eta EKren 149. artikulua definitzen duen markoaren baitan euren eskuduntzak zabaldu ditzaketela. Hortaz, ondorioztatu daiteke EKK diseinatzen duen eskuduntza sistema sistema malgua eta irekia dela, gradualki AAEEek eskuduntza berriak bereganatzeko eta haren autonomia areagotzeko asmoa adierazten duelarik.

Behin ulertuta Espainiako Estatuaren eta AAEEen arteko botere banaketa, EKren 149. artikulua horien arteko eskumen mota ezberdinak aurreikusten ditu, horiek ezberdindu ahal izateko beharrezkoa izanik eskumen eskusiboa, eskumen partekatua eta eskumen konkurrentea definitzea.

Eskumen eskusiboa ente bakar batek materia beraren gaineko ahalmen guztiak barnebiltzen dituen ematen da, EKren 149.1 artikuluan gertatzen den moduan, Espainiako Estuari eskumen eskusiboa atxikituz, beste batzuen artean, nazioarteko harremanen, justiziaren eta naziokotasunaren gaitetan.

Eskumen partekatua ente bat baino gehiagok materia baten gaineko ahalmen ezberdinak dituztenean ematen da, esan daitekeelarik ente horiek materia konpartitzen dutela. Honi jarraiki, EKk, bere 149. artikuluan, Espainiako Estatuari materia baten gaineko oinarrizko legeriaren atxikitzea aurreikusten du, horren garapen normatiboa eta exekuzioa AAEEei utziz, edo legeria Espainiako Estatuari esleitzea, AAEEei exekuzioa bakarrik esleituz.

Eskumen konkurrentea emango litzateke bi entei materia baten gaineko arauketan ahalmen berak aurreikusterakoan. Hau EKren 149.2 artikuluan ikusi daiteke, kulturen aplikatu daitekeen supostua izanik, ulertzen baita AAEEei egozgarri zaizkien eskumenak ez direla horien arteko komunikazioa errazteko Espainiako Estatuaren helburuarekin bateraezinak.

Hau ikusita, beharrezkoa da ahalmenei buruzko tipologia azaltzea, oinarrizko legegintza, garapen legegintza eta exekuzioa ezberdintzen direlarik.

Oinarrizko legegintzari buruz, Konstituzio Auzitegiaren (hemendik aurrera KA) 32/1981 sententziak, 1981eko uztailaren 28koak, honakoa adierazten du, hitzez hitz: *“La garantía constitucional es de carácter general y configuradora de un modelo de Estado, y ello conduce, como consecuencia obligada, a entender que corresponde al mismo la fijación de principios o criterios básicos en materia de organización y competencia de general aplicación en todo el Estado”*. Beraz, Estatu Zentrala da antolaketa-aren eta Estatu osoan aplikagarria den eskuduntza orokorraren materietan oinarrizko irizpideak zehazteko eskumenduna.

Garapen legegintzak, Estatuak ezarritako oinarrizko legegintza hori garatu egiten du, honi buruz sententzia berak honakoa adierazten duelarik: *“En el respeto de esas condiciones básicas, por tanto, las Comunidades Autónomas podrán legislar libremente”*. Beraz, irizpide horien barnean eta horiek errespetatuz AAEEek oinarrizko legegintza hori garatu ahal izango dute. Are gehiago, sententziak honakoa gehitzen du: *“Es forzoso concluir, por tanto, que también cuando se trata de legislar sobre cuestiones que conciernen directamente a la composición, estructura y competencias de los entes territoriales y de sus órganos de gobierno y administración, deben las Comunidades Autónomas respetar las bases establecidas por la legislación vigente”*. Hau da, AAEEen

eta horien administrazio eta gobernu organoen eraketaren, egituraketaren eta eskumenen legegintzaren garapenari begira, oinarrizko legegintza errespetatu beharko da.

Honekin batera exekuzioaren figura dago, hau oinarrizko legegintzaren eta garapen legegintzaren betearazpena izanik, EKren 149. artikulutik ondorioztatzen delarik AAEEek garapen legegintzarako eta exekuziorako eskumena izango dutela, edo bakarrik exekuziorako eskumena.

Amaitzeko, EKren 149.3 artikuluari aipamena egin behar zaio. Bertan, Espainiako Estatuaren eta AAEEen arteko eskumen gatazkak konpontzeko teknikak edo klausulak aurreikusten dira: hondar klausula, lehentasun klausula eta osagarritasun klausula, hain zuzen.

Hondar klausularen arabera, AAEE batek Espainiar Estatuari erreserbatuta ez dagoen eskumen baten gaineko bereganatzea ez burutzekotan, ez estatutuaren bitartez ez transferentzia edo eskuordetza lege organiko baten bitartez, eskumen hori Espainiar Estatuari ezarriko zaio.

Lehentasun klausulak ordea, AAEEei atxikitu ez zaien eskuduntza baten gainean, AAEEen arauen eta arau Estatalen arteko gatazka egotekotan, arau Estatalen gailentasuna bermatzen du.

Osagarritasun klausulak berriz, AAEEen arauzko hutsune baten aurrean Estatuaren arautegia aplikatuko dela adierazten du, KAren 147/1991 sententziak, 1991ko uztailaren 4koak, aurkezten duen moduan: *“el principio de supletoriedad solamente actúa cuando falta la especialidad, esto es, cuando no existe un Derecho propio de las Comunidades Autónomas”*. Are gehiago, sententziak azaltzen du behin AAEEek arlo horren gaineko arauketa propioa edukitzerakoan, Estatuaren arautegia aplikatzeari utziko zaiola: *“debe ratificarse la interpretación que sostiene que, una vez aprobado el Estatuto de Autonomía, la competencia estatal para legislar sobre materias de la competencia autonómica aparece agotada”*. Beraz, osagarritasun klausulen bitartez Espainiako Estatuak AAEEren eskumenekoak diren, baina horien gaineko arauketa oraindik existitzen ez den gaiak arautu ahal izango ditu, behin arauketa autonomikoa egoterakoan eskuduntza estatala agortuko litzatekeelarik.

Hau guztiaz gain, EKren 150. artikulua dugu. Artikulu honek, Bassols Coma eta Serrano Albercaren (1982: 41-42) arabera, EKren 148 eta 149. artikuluetan aurreikusita ez dagoen eskuduntzen banaketarako beste sistema bat definitzen du. Honi jarraiki, 3 prozedura aurreikusten dira: lege markoen bitartekoa (150.1 artikuluan), zeinaren bitartez lege estatal batek zehaztutako printzipioen, oinarrien eta gidalerroen markoan AAEEei legegintza eskumenak eskuordetuko lirateke, ordezkari- eta eskuordetza-lege organikoen bitartekoa (150.2 artikuluan), estatuaren titulartasuneko gaien gaineko ahalmenak transferitzea edo lagatzea ahalbidetuz, eta kutsu deszentralizatzailea duen harmonizazio legeen bitartekoa (150.3 artikuluan), hau eskuduntzen zentralizaziorako prozedura izanik.

Bacigalupo Sagesserren (2003) arabera, artikulu hau osatzen duten 3 parrafoak ez dira homogeneoak, lehenengo biek estatutu autonomikoetatik at AAEEen eskumenen esleipenari erreferentzia egiten dioten heinean, azkenengoak AAEEen eskumen propioko gaien egikaritzan Estatuaren parte-hartzea baimentzen duelarik.

AAEEen estatutuz kanpoko esleipenetatik garrantzitsuena ordezkari- eta eskuordetza-lege organikoen bitartez buruturikoa da. Izan ere, hainbat kasutan izan da aplikagarri: Kanariar Uharterei eta Valentziako Erkidegoari adibidez, titulartasun estataleko materien transferentziak arautzen dituzten lege organikoen bitartez (11 eta 12/1982 Legeak), edo materia konkretuen transferentzien kasuan, Balear Uharterei, barne merkataritzaren gaineko eskuduntzaren transferentzia arautzen duen lege organikoaren bitartez (2/1996 Legea), besteak beste.

Garrantzitsua da transferentzia- eta eskuordetza-lege organikoen arteko ezberdintasuna egitea. Rodríguez de Santiago eta Velasco Caballerok (1999), transferentzia bi subjektuen arteko deszentralizazio harremana ezartzen duen ekintza juridiko moduan definitzen dute. Hau da, nahiz eta Estatuak materiaren gainean juridikoki beharrezkoa den kontrol edo tutela izan, AAEEak eskuduntza bereganatzen du. Ordezkari ordea, organo edo erakunde juridiko publikoen arteko deskontzentrazio harremana ezartzen duen ekintza juridikoa litzateke. Deskontzentrazioaren bitartez, nahiz eta Estatuak tutela juridiko eta materiala izan, AAEEek euren izen propioan materiaren gaineko eskumena bereganatzen dute. Beraz, kasu honetan ez litzateke eskumenaren

titulartasunaren lekualdaketa gertatuko, baizik eta eskuduntza egikaritzeko ahalmenarena.

Harmonizazio legeei dagokionez, KAren 76/1983 sententziak, abuztuaren 5ekoak, honakoa adierazten du, hitzez hitz: *“El art. 150.3 constituye una norma de cierre del sistema, aplicable sólo a aquellos supuestos en que el legislador estatal no disponga de otros cauces constitucionales para el ejercicio de su potestad legislativa o éstos no sean suficientes para garantizar la armonía exigida por el interés general (...). Las leyes de armonización vienen a complementar, no a suplantar, las demás previsiones constitucionales”*. Hau da, kontuan izanda EKK jada bere 149.1 artikuluan Estatu Zentralaren eskumenekoak diren gaien zerrenda aurkezten duela, harmonizazio legeen bitartez ezin zaizkie horiek baino eskumen gehiago kendu AAEEei. Beraz, 150.3 artikulua helburua gainerako aurreikuspen konstituzionalen gehigarritzat hartu behar da, ez ordezkatzetzat.

Azkenik, EKren 161.1 artikulua da aipagarri, zeinetan adierazten den KAK Estatu Espainiar osoan jurisdikzioa duela, hurrengo parrafoetan zehaztuz zeintzuk diren bere eskumenak. Estatu Espainiarraren eta AAEEen arteko botere banaketari dagokionez, artikulua honen c) atalean KAK Estatuaren eta AAEEen arteko eskumen gatazkak ezagutzeko jurisdikzioa duela adierazten da. Honi loturik, Torres Murok (2003) aldarrikatzen du Estatu Autonomikoaren ideia ezin dela KAren jurisprudentzia kontuan izan gabe ulertu, Auzitegia beraz, Estatuaren babesle moduan agertuz, bai ikuspuntu lurraldetarraren aldetik, bai AAEEen autonomia politikoaren aldetik.

Guztiarekin, eta arestian aipatu moduan, garrantzitsua da EKren 2. artikulua aldarrikatzen duen autonomia printzipioa Estatu Espainiarraren batasun printzipioaren barnean kokatzea, KAren 1981eko otsailaren 2ko 4/1981 sententzian adierazten den moduan: *“Ante todo, resulta claro que la autonomía hace referencia a un poder limitado. En efecto, autonomía no es soberanía -y aún este poder tiene sus límites-, y dado que cada organización territorial dotada de autonomía es una parte del todo, en ningún caso el principio de autonomía puede oponerse al de unidad, sino que es precisamente dentro de este donde alcanza su verdadero sentido, como expresa el artículo 2 de la Constitución”*.

Horretaz gain, aipatzekoa da geroago aztertuko dugun KAren 89/2019 sententzia, 2019ko uztailaren 2koa. Sententzia honek Diputatuen Kongresuko 50 diputatuk baino gehiagok 2017ko urriaren 27ko Senatuaren Akordioaren gainean ezarritako konstituzio kontrakotasun errekursoari erantzuten dio, Akordio horretan EKren 155. artikulua babespian Gobernuak eskatzen zituen neurriak onartzen zirelarik. Horretarako, batasun eta autonomia printzipioen arteko harremana garatzen du: *“La estructuración del poder del Estado se basa en el principio de unidad, fundamento de la propia Constitución. La indisoluble unidad de la Nación española que afirma el art. 2 CE se combina con el reconocimiento del derecho de las nacionalidades y regiones a la autonomía. El derecho a la autonomía se encuentra así proclamado en el núcleo mismo de la Constitución junto al principio de unidad, en cuyo seno alcanza su pleno sentido.”*. Beraz, honekin ondorioztatu daiteke AAEEen autonomia boterea mugatua dela, Estatu Espainiarraren batasun printzipioaren pean garatzen baita.

Espainiako Estatuaren eta AAEEen konfigurazioaren analisiarekin amaitzeko, EKren 155. artikulua aipatu behar dugu, zeinak horien arteko eskumen gatazkak konpontzeko koertzio estatalaren ideia aurkeztzen du, hitzez hitz honakoa adierazten duelarik:

“1. Si una Comunidad Autónoma no cumpliere las obligaciones que la Constitución u otras leyes le impongan, o actuare de forma que atente gravemente al interés general de España, el Gobierno, previo requerimiento al Presidente de la Comunidad Autónoma y, en el caso de no ser atendido, con la aprobación por mayoría absoluta del Senado, podrá adoptar las medidas necesarias para obligar a aquélla al cumplimiento forzoso de dichas obligaciones o para la protección del mencionado interés general. 2. Para la ejecución de las medidas previstas en el apartado anterior, el Gobierno podrá dar instrucciones a todas las autoridades de las Comunidades Autónomas”.

3.2. Alemaniako ereduari begirada bat. Bonn legea eta koertzio federala.

Vírgala Foruriak (2005: 58) adierazten du estatu konposatu oro, izan federala, erregionala edo autonomikoa, elkarren kontrakoak diren autonomia eta batasun printzipioen etengabeko tentsioan murgilduta dagoela. Batasun printzipioaren bitartez

beraz, lurralde erakundeen eta estatu zentralaren organoen arteko harmonizazioa bilatzen da.

Aurreko atalean azaldu moduan, Lafuente Ballek (2018: 90) adierazten du EKk 3 itxiera klausula barneratzen dituela, eskumen banaketan sortu daitezkeen hutsuneak betetzeko. Hala ere, Gómez Orfanelek (2005: 41-42) adierazi duenez, AAEE batek, egite edo ez-egite batengatik EKn ezarritako arauetako bat kaltetuko balu, gatazka hori konpontzeko aldebakarreko izaera duen koertzio estatalaren instituzioa sortu izan da, koertzioaren muina oinarritzotzat hartzen den interes baten babes edo nahitaezko betetzean egonik.

Gómez Orfanelen hitzetan, koertzio estatala, zeina EKren 155. artikuluan aldarrikatzen den, Alemaniako Bonn Legearen (hemendik aurrera, ABL) 37. artikuluan adierazten den koertzio federalean oinarritzen da. Are gehiago, Álvarez Álvarezek (2016: 277-278) adierazten du EKren 155. artikulua bitartez sistema deszentralizatu alemaniarraren funtzionamenduan ezarrita dagoen kategoria bat ezarri nahi izan zela Estatu Espainiarraren printzipio autonomikoan. Kategoria hori Estatu Zentralaren organo ezberdinei atxikitutako gaitasun bat litzateke, zeinaren bitartez eta hartutako neurri ezberdinen bidez, sistema deszentralizatu horretako gainerako kideek EKn eta legetan inposatutako obligazioak betetzea bilatzen da.

EKren 155. artikulua aztertzerako sartu baino lehen, beharrezkoa da haren oinarria den ABLren 37. artikulua eta hark aldarrikatzen duen koertzio federala aztertzea. Hitzek hitz horrela dio aipatu artikulua:

“1. Si un Land no cumpliere los deberes federales que la Ley Fundamental u otra ley federal le impongan, el Gobierno Federal, con la aprobación del Bundesrat, podrá adoptar las medidas necesarias para obligar al Land al cumplimiento de dichos deberes por vía coactiva federal. 2. Para la ejecución de las medidas federales coactivas, el Gobierno Federal o su representante tiene el derecho de impartir instrucciones a todos los Länder y a las autoridades de los mismos”.

Virgala Foruriaren (2005: 57) arabera, koertzio federala (*Bundeszwang*) edo betearazpen federala (*Bundesexecution*), estatukideen betetze konstituzionalaren inposaketa ahalbidetzen duen instituzio juridikoa da, batasun printzipiotik ondorioztatutakoa.

Lafuente Balleren (2018a: 97) aburuz, koertzio federal alemaniarraren egitatezko kasua *Land* baten betebeharraren federalen (hau da, bere obligazio konstituzionalen) ez-betetzea da, alemaniar doktrinak ez-betetze hau leialtasun federalaren aurkako egintzat hartzen duelarik.

Prozesu hau hasteko legitimazioa Gobernu Federalak hartutako erabaki politikoan datza, horretarako zenbait betekizun bete beharko direlarik: obligazio konstituzional konkretuaren ez-betetzea identifikatzea, hura betearazteko neurrien zehaztapena eta *Bundesrat*-ak (Alemaniako Kontseilu Federalak) gehiengo absolutuz onartzea. Erabaki hau diskrezionala den heinean, jurisdikzioaren bitartez errekurriezina da.

Koertzio federalaren erabilera ez da askea, baizik eta Arroyo Gilek (2015: 61-62) azaltzen duen moduan, bi premisari lotuta dago: bata materiala eta bestea formala. Premisa materialari dagokionez, Federazioak modu hertsatzailean *Land* baten esku hartu ahal izateko, hark obligazio federal baten ez-betetzea burutu behar izango du, ez-betetze hori objektiboa izan beharko delarik, kontuan izan barik nahita edo nahi gabe burutu den, eta egite edo ez-egite batek eragina izan den. Hala ere, beharrezkoa izango da ez-betetze hori *Land*-ari egozgarria izatea eta ez haren menpeko organoren edo beste administrazio lurraldetarren bati.

Gainera, aipatzekoa da printzipio federalaren aplikaziotik ondorioztatzen dela koertzio federalak izaera subsidiarioa duela, eta beraz, bakarrik egikaritu ahal izango dela *Land*-ari dagokion obligazio konstituzional edo legalaren betetzea beste bide arinago batzuen bitartez exijitu ezin zaionean, hala nola negoziazioen eta akordioen bitartez edo bide judizialaren bitartez.

Premisa formalari dagokionez, honek Gobernu Federalaren eta *Bundesrat*-aren interbentzioa eskatzen du, ebazpenen bitartez, interbentzio hori 3 etapa ezberdinetan gauzatu. Lehenik eta behin, ez-betetzearen momentuan, Gobernu Federala baita *Land*

baten obligazio federal baten ez-betetzea aldarrikatu dezakeena; bigarrenik, Gobernu Federalak *Land*-ari dagokion obligazio federala betearazteko akzio hertsatzailearen erabilera egikaritutako duela adierazten duenean; eta azkenik, *Bundesrat*-ak, gehiengo absolutuz, Gobernu Federalak proposatutako akzio hertsatzailearen eta horretarako zehaztutako neurri zehatzen egikaritzaren baimen partzial edo osoa ematerako momentuan.

Koertzio federalarekin amaitzeko, aipatzekoa da, nahiz eta ABLk ez duela neurri hertsatzaile konkretuak zeintzuk diren adierazten. Gainera, jurisprudenziatik ezin ditugu neurri horiek zeintzuk diren ondorioztatu, errealitatean artikulua hau ez baita inoiz aplikatu.

Hala ere, Ridao Martínek (2018: 178) adierazten du doktrinak, hartu daitezkeen neurrien artean aurreikusi dituela esku-hartze finantzarioa, jarduera legegile edo betearazlearen ordezkoko exekuzioa eta *Land*-aren interbentzio poliziala. Baita ere *sequestration* delakoa, zeina komisario federal baten designazioan oinarritzen den, honek behin behineko modu baten *Land*-ean eskumenen egikaritza bere gain hartzen duelarik.

Dena den, aipatzekoa da ABLren 79.3 artikulua erreforma konstituzionalari dagokionez ukiezintasun klausula aldarrikatzen duen heinean, neurri moduan *Länder*-en erregimen federalaren suspentsioa burutzea debekatuta dagoela: “*No está permitida ninguna modificación de la presente Ley Fundamental que afecte la organización de la Federación en Länder, o el principio de la participación de los Länder en la legislación, o los principios enunciados en los artículos 1 y 20*”.

Aurretiaz aurkeztu dugun Lafuente Ballek (2018a: 93-94) adierazten du ere ABLren 37. artikulua aldarrikatzen duen koertzio estatalaz aparte, Legeak Estatuaren eta *Länder*-en arteko harremanak arautzeko eta betebeharrak federalak betearazteko beste irizpide batzuk aurreikusten dituela.

Lehenengoa ABLren 84. artikuluan aurreikusten da, zeinetan *Bundesaufsicht*-a (gainbegiraketa federala) arautzen den, hau izanik komisionatuen bitartez Gobernu Federalak *Länder*-en gain burutzen duen gainbegiraketa, hauek lege federalak exekutatzeko dituztela kontrolatzeko. Horrela ez izatekotan, *Bundesrat*-ak ebazpen bat

eman dezake, *Land*-ak legea urratu duen edo ez adieraziz, eta urratu izatekotan, lege federal baten bitartez Gobernu Federalari kasu konkretuetan *Land*-ari instrukzio indibidualizatuak zehazteko eskumena emango litzaioke, lege federalen exekuzioa bermatzeko helburuarekin.

Bigarren aukera ABLren 91. artikuluan aurkitzen dugu, zeinak Estatu Federalaren interbentzioa aurreikusten duen. Artikulu honen arabera, askatasuna eta demokraziaren aurkako mehatxu baten aurrean eta segurtasuna eta ordena publikoa berrezartzeko helburuarekin, *Land* batek Mugak Babesteko Kidego Federalaren edota Indar Armatuaren babesa eskatu dezake. Gainera, *Land* horrek arriskuaren aurka egingo ez balu, Gobernu Federalak bertako polizia eta baita beste *Land*-etako poliziak bere menpe jarri ahalko lituzkeela adierazten du.

Amaitzeko, ABLren 87.a.4 artikulua arabera, Gobernu Federalak zuzenean esku hartu ahal izango du, *Land*-aren aurretiazko erreklamaziorik gabe, Federazioaren existentziaren, askatasunaren edo demokraziaren aurkako berehalako arrisku baten aurrean edota talde antolatu eta armatuaren aurka borrokatzeko.

Irizpide guzti hauekin ondorioztatu daiteke ABLk Gobernu Federalari bi eredu aurreikusten dizkiola hark *Land*-etan parte-hartzeko. Bata, estatukide baten eskakizunaren ondoriozko interbentzio eta gainbegiraketa federala, eta bestea, koertzio federala. Azkenengo hau dugu EKK, bere 155. artikuluan, aldarrikatzen duen koertzio estatalaren oinarria.

3.3. Espainiako koertzio estatala: Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua. Ezberdintasunak Alemaniako Bonn Legearen 37. artikuluekiko

Arestian adierazi moduan, Espainiako AAEEen autonomia printzipioa Espainiako Estatuaren batasun printzipioaren barnean kokatu behar dugu, batasun hori errespetatzeko zenbait neurri aurreikusten direlarik.

Albertí Rovirak (2018: 2) adierazten duenez, estatu konposatu orotan 3 bide aurreikusten dira entitate lurraldearen artean sortu daitezkeen gatazkak konpontzeko: negoziazioa, auzitegien aurreko errekursoaren bitarteko bide juridikzionala eta

Estatuaren inposaketa hertsatzailea, AAEE batekin gatazka bat izatekotan nagusitzea lortzeko.

Aztertzen ari garen neurria EKren 155. artikulua aurreikusten duen neurri hertsatzailea da, honek koertzio estatalaren figura aldarrikatzen duelarik, ABLren 37. artikulutik eratortzen dena.

Vilajosana Rubiok (2019: 145-146) ABLren 37. artikulua eta EKren 155. artikulua arteko antzekotasunak aztertzen ditu, horiek izanik Estatu edo AAEEen obligazioen ez-betetzearen aurrean figura baten aurreikuspena, koertzioarena hain zuzen, zeinaren bitartez gobernu federal edo zentralak obligazio horiek betetzera derrigortu ditzake eta nahitaezko betetze hori bermatzeko mekanismoak definitu, modu orokorrago (*“adoptar las medidas necesarias”*) edo konkretuago baten (*dar instrucciones a todas las autoridades de las Comunidades Autónomas”*).

Hala ere, aipatzekoa da nahiz eta EKk aldarrikatzen duen koertzio estatala ABLk aurreikusitako koertzio federalean oinarritu, euren artean ezberdintasun nabarmenak daudela.

Albertí Rovirak (2018: 4-5) hiru ezberdintasun nabarmentzen ditu. Horietako bi literaltasunari buruzkoak dira; EKren 155. artikulua aplikaziorako kasuak zabaltzen baititu, ABLren 37. artikuluan aurreikusten diren konstituzio eta lege federaletatik ondorioztatzen diren obligazioak ez-betetzeari Espainiako interes orokorra nabarmen kaltetzen duen edozein ekintza autonomiko gehitzen baitaio; eta EKk aparteko neurrien aplikazioaren aurrekoa den prozedurazko neurri bat gehitzen baitu: AAEEren presidenteari aurretiazko errekerimendua.

Azkenengo ezberdintasuna testuinguru instituzionalak zehaztuko luke. Izan ere, nahiz eta bai ABLn bai EKn beharrezkoa izan Gobernuak obligazioen betetzea bermatzeko hartutako neurriak bigarren ganberak onartzea, kontuan izan behar da Alemaniako *Bundesrat*-aren eta Espainiako Senatuaren artean, konposaketari dagokionez ezberdintasun nabariak daudela. Izan ere, Alemanian, Gobernu Federalaren neurriak bakarrik bete ahal dira *Länder*-en gobernuak hala onartzen badute. Espainian ordea, gehiengo gubernamentalaren onarpenarekin nahikoa da, Senatuaren hauteskunde-sistema

dela-eta erraza delarik neurriak onartzeko beharrezkoa den gehiengo absolutura heltzea, AAEEek ez dutelarik inolako indarrik euren parte-hartzea bermatzeko.

Horretaz gain, Lafuente Ballek (2018a: 98) beste ezberdintasun bat zehazten du. Izan ere, EKk ez-betetzearen objektu diren legeak zehazten ez dituen heinean, ABLk lege horiek lege federalak direla adierazten du.

Orain arte, koertzio estatalaren bitartez indar hertsatzailea egikartzeko ahalmenaren zentzuak arreta gutxi jaso izan du. Hori dela-eta, Álvarez Álvarezek (2016: 278-279) adierazten du EKren 155. artikulua egitatezko kasuak eta definitu gabeko ondorioak interpretatzeko koertzio federalaren edukia eta funtzioak asumitu izan direla, printzipio autonomikoaren egiturazko irizpideak eta irizpide teorikoak printzipio federalenen oso ezberdinak izanik. Honek nahasmen handia sortu izan du, akademikoen arteko desadostasunak eraginez. Gainera, 1978ko EKk ABLk aurreikusten duen egitatezko kasuari Espainiako interes orokorrari buruzko klausula bat gehitu dio, koertzio federalean ezezaguna delarik.

3.4. Espainiako Konstituzioaren 155. artikuluan sakontzen

Ridao Martínen (2018: 172) lanean irakurri dezakegu EKren 155. artikulutik ondorioztatzen den koertzio estatala betebeharrak konstituzionalak betetzea eta Estatuaren interes orokorraren mantentzea bermatzeko mekanismoa dela, haren aplikazioak neurri hertsatzaile batzuen erabilera eragiten duelarik, AAEE batek ordenamendu konstituzionalaren aurkakoa den portaera bat zuzentzeko helburuz.

EKren 155. artikulua aldarrikatzen duen koertzio estatala ulertzeko, beharrezkoa da hura oinarritzen duten printzipioak aztertzea, egitatezko kasuak identifikatzea eta aplikazio prozedura zehaztea.

3.4.1. Definizioa eta oinarritzko printzipioak

EKren 155. artikulua oinarria ulertu ahal izateko, definizio moduan Ballart Hernándezen (1987) testutik honakoa atera dezakegu: EKren babeserako, erakundearen funtzionamendu egokirako eta sistemaren batasun eta kohesiorako figura juridikoa.

Ikusi dezakegunez, Estatu Espainiarraren batasun printzipioa artikulua hau oinarritzen duen printzipioa da, honi loturik AAEEen autonomia printzipioa egonik.

Are gehiago, aipatzekoa da Albertí Rovirak (1992-1993: 233-236) adierazten duela elkarren aurkakoak diren batasun eta autonomia printzipioak, zeintzuen arteko oreka beharrezkoa den, bi interesen baitan planteatzen direla: Estatuaren interes orokorra eta AAEE bakoitzaren interes partikularra, beharrezkoa izanik bi interes hauen arteko bereizketa eta harremana leialtasun printzipioaren inguruan egituratzea.

Leialtasuna beraz, jokoan dagoen interesaren arabera jardueren bereiztea, interes orokor guztien errespetua eta AAEE bakoitzaren interes partikularren errespetua litzateke.

Arestian aipatutako KAren 2019ko uztailearen 2ko 89/2019 sententzian, adierazi egiten da zeintzuk diren EKren 155. artikulua aplikazioa eraendu behar duten printzipioak: *“El abogado del Estado alude a los principios que deben regir la aplicación del art. 155 CE: **gradualidad o necesidad** (por tratarse de una última ratio, el precepto sólo sería de aplicación cuando hubieran fallado los mecanismos ordinarios para asegurar el cumplimiento por la comunidad autónoma, debiéndose aplicar las medidas aprobadas de forma gradual); **proporcionalidad** (de modo que no podría acudir a una forma particularmente grave de intervención cuando cupiera obtener los mismos resultados con medidas de menor intensidad); **transitoriedad o temporalidad** (hasta lograr el restablecimiento del orden constitucional vulnerado, dado el carácter de injerencia en la autonomía) y **mínima intervención** (lo que no sería sino concreción del principio de gradualidad, en cuanto se debe adoptar la medida menos gravosa si ello fuera posible)”*.

Gainera, Calafell Ferrák (2000: 127-129) adierazten du nahiz eta EKk, bere 155. artikuluan, ez zehaztu zeintzuk diren obligazioak ez betetzeagatik edo interes orokorraren aurka joateagatik Gobernu Zentralak har ditzakeen neurriak, beharrezkoa dela neurri horien definizioa eta erabilera mugatzen duten printzipioak zehaztea, horiek izanik:

- a) Beharrezkotasun printzipioa: printzipio hau printzipio mugatzaile moduan eta printzipio gaitzaile moduan ulertu behar da. Printzipio mugatzaile moduan,

bakarrik behar-beharrezkoak diren neurriak hartu behar direlako, neurritz kanpokoak edo desegokiak alde batera utziz; eta printzipio gaitzaile moduan, EKren 155. artikulua aldarrikatzen duen helburua lortzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu ahal direlako. Ideia hau aurretiaz aipatutako KAren 2019ko uztailaren 2ko 89/2019 sententziarekin lotu dezakegu, zeinak adierazten duen neurriak *ultima ratio* direla; hau da, obligazioak betearazteko edo interes orokorra errespetatzeko aurreikusten diren ohiko neurriekin helburua bete ezean aplikagarriak lirateke.

- b) Proporzionaltasun printzipioa. Perello Domenechek (1997: 70) proporzionalitate printzipioak hiru elementu barneratzen dituela aldarrikatzen du: erabilgarritasuna edo egokitzapena, beharrezkotasuna edo ezinbestekotasuna eta proporzionaltasuna *strictu sensu*. Azalpen hau Auzitegi Gorenaren (hemendik aurrera AG) 1995eko ekainaren 13ko 66/1995 sententzian aurkitzen dugu. Haren arabera, erabilgarritasun edo egokitzapenari dagokionez, ezarritako neurria haren bitartez lortu nahi den helburua betetzeko balio beharko du. Beharrezkotasuna edo ezinbestekotasunari buruz, neurria beharrezkoa izan beharko da; edo behintzat, hartu daitezkeen neurri guztien artean moderatuena. Eta azkenik, proporzionala zentzu hertsian izan beharko da; hau da, hartutako neurritik kalteak baino onura eta abantaila gehiago ondorioztatu behar da.
- c) Iragankortasun printzipioa: koertzio neurrien bitartez bilatzen den helburua kontuan izanda, zehaztutako neurri horiek erabiltzeari utzi beharko zaio behin AAEEak bete ez duen obligazioa betetzen duenean edo Espainiako interes orokorraren aurka jarduteari uzten dionean. Hala ere, honek ez du esan nahi horien aplikaziorako epemuga bat definitu behar denik; izan ere, kasu gehienetan ezinezkoa da aurreikustea noiz hasiko den AAEEak 155. artikulua agintzen diona betetzen.
- d) Zehaztapen printzipioa: aurrerago aztertuko dugun Senatuaren Erregelamenduko (hemendik aurrera, SE) 189. artikulua arabera, beharrezkoa da koertzioa egikaritzeko neurriak mugatu edo zehaztea, ezin dugularik hertsatzeko ahalmen orokor bati buruz hitz egin. Cruz Villalónek (1984: 59-60) adierazten duen moduan, betebeharrak hau bi arazoietan oinarritzen da. Alde batetik, koertzio

estatalaren figuraren aparteko izaeran eta honek eskualdeen autonomia eskubidean duen eraginean, neurriek hedapen zehaztugabea edukitzea debekatzen duelarik. Beste alde batetik, neurrien izaera konkretuak ahalbidetuko du, Gobernuaren koertzio estatalaren aplikazio batengatik KAren aurreko inpugnazio baten kasuan, auzitegiak irizpide zuzenak edukitzea Gobernuaren balizko desbideratze edo gehiegikeriak neurtzeko.

- e) Eskubide autonomikoen gutxieneko interbentzioaren printzipioa: honen arabera, ezin izango da interbentzio neurri bat aplikatu, AAEE baten autonomiaren egikaritzea hainbeste mugatzen ez duen beste neurriren bat aplikatu badaiteke.
- f) Ezarritako neurriak AAEE bati dagokionez hartzearen printzipioa: ezarritako koertzio neurriak AAEE baten aurka hartu behar dira, ez haren organoen edo bertako biztanleen aurka. Izan ere, koertzio estatala martxan jarri dezakeen ez-betetzea edo interes orokorraren aurkako ekintza AAEEari egozgarria izan beharko da, eta ez bertako organo, autoritate, funtzionario edo biztanleei.

Beraz, nahiz eta EKK ez adierazi zeintzuk diren AAEEen Espainiako Estatuaren interes orokorrarekiko errespetua eta haien obligazioen betetzea bermatzeko neurri zehatzak, doktrinak eta jurisprudentziak aldarrikatu izan dute neurri horiek azaldutako printzipio hauetan oinarritu behar direla.

3.4.2. Egitatezko kasuak: obligazioak ez betetzea eta interes orokorraren aurka egitea

Arestian azaldu moduan, EKren 155. artikulua bi egitatezko kasu aurreikusten ditu. Hortaz, AAEEren batek ez baditu horiek errespetatzen, Espainiako Estatuak artikulua horretan aldarrikatzen den koertzio estatala egikaritu lezake. Egitatezko kasu horiek EKK edo beste legeren batek aldarrikatutako obligazioak ez betetzea edo Espainiako Estatuaren interes orokorraren aurka jardutea dira.

Bi egitatezko kasuen konkurrentzia emateari dagokionez, autoreek iritzi ezberdinak aurkezten dituzte. Esaterako, Caamaño Domínguezek (2020: 295-296) adierazten du konkurrentzia ez dela beharrezkoa koertzio estatala egikaritu ahal izateko.

Autorearen arabera, egitatezko kasuetatik bat ematearekin nahikoa da EKren 155. artikulua aplikatzeko; eta gainera, bigarren supostua betetzeak ez du esan nahi lehenengoa betetzen dela; hau da, AAEEtako batek Espainiako interes orokorraren aurka egiteak ez du esan nahi AAEE horrek ez dituela EKk edo beste lege batek aldarrikatutako obligazioak betetzen. Ballart Hernándezek (1987), ordea, adierazten du 155. artikuluan barneratzen den Espainiako interes orokorraren aurka egitearen esaldiak EKren eta gainerako legeen ez-betetzearen supostua garatzeko eta definitzeko balio duela, ez delarik beste egitatezko kasutzat hartu behar.

Betebehar konstituzionalak edo beste lege batzuetan barnebiltzen diren betebeharren ez betetzea, KAren 215/2014 sententziak, 2014ko abenduaren 18koak, honela definitzen du: *“una situación de incumplimiento manifiesto y contumaz, deliberado o negligente, de una determinada Comunidad Autónoma, que no ha optado, primero, por propia iniciativa, y luego, a instancia del Estado, las medidas oportunas para corregir la desviación en la que ha incurrido”*. Beraz, ez-betetze hori agerikoa eta tematia izan beharko da EKren 155. artikulua aplikagarri egiten duen egitatezko kasutzat hartzeko, eta gainera, AAEEak ez du hura konpontzeko ekintzarik burutu izan behar, ez ekimen propioz ez Estatuaren eskariz.

AAEEaren ekintza bat obligazioen ez-betetzetzat hartzeko, Vírgala Foruriak (2005: 85-87), ez-betetze horrek betekizun batzuk errespetatu behar dituela adierazten du.

Lehenik eta behin, ez-betetze hori positiboa edo negatiboa izan beharko da; hau da, egiteagatiko ez-betetzea edo ez egiteagatiko ez-betetzea.

Bigarrenik, ez-betetze hori ordenamendu juridikoan aurreikusitako betebehar juridikoei buruzkoa izan beharko da, eta ez desadostasun politiko, betebehar moral, gomendio edo aholkuei buruzkoa.

Hirugarrenik, ez-betetze hori larria izan beharko da; hau da, koertzio estatalaren figurak adierazten du erabaki judizial baten ez-betetze hutsa ez dela nahikoa hura martxan jartzeko. Larrizat hartzeko, ez-betetze hori denboran zehar behin eta berriz burututakoa izan beharko da, horren bitartez erabaki judizialak ez obeditzeko borondatea adierazten

delarik, edo ez-betetze bakarra, baina botere banaketaren sistemari eragiten dion oinarrizko gai baten gainekoa.

Laugarrenik, Vírgala Foruriak ez-betetzea subjektiboa izan beharko dela adierazten du; hau da, doloz edo erruz burututakoa, eta ez AAEEari bere obligazioak betetzea eragozten dion ez-betetze objektiboa, horrela izango balitz AAEEak Estatuari laguntza erreklamatu ahalko liokeelako, EKren 155. artikulua aplikatu behar izanik gabe.

Bosgarrenik, ez-betetzea efektiboa izan beharko da. Puntu honi dagokionez, KAren 2014ko apirilaren 10eko 42/2014 sententziak ezartzen du: *“De otra parte, no se trata sólo de que la resolución o acto tenga trascendencia o efectos ad extra, sino también de que produzca efectos jurídicos concretos y reales, en el sentido de que lleguen a suponer una alteración o modificación del ordenamiento jurídico, a partir de la cual se pueda realizar el contraste con la Constitución”*. Beraz, AAEE baten obligazioen ez-betetze efektiboa emateko, beharrezkoa da ez-betetze horrek efektu juridikoak eragitea, zeintzuek ordenamendu juridikoaren eraldaketa eragin behar duten.

Amaitzeko, ez-betetzea EKren edo legeen gainekoa izan beharko da. Legeei dagokionez, horiek Gorte Nagusien legeak, lege estatalak eta lege autonomikoak lirateke. “Lege” terminoa modu murriztaile baten interpretatu beharko da; hau da, lege-maila duten arauak izan beharko dira, kanpoan utziz akordioak, hitzarmenak edota erregelamenduak. Beste betebeharrak ez-betetzea AAEEko goi-organoei egotzi behar zaiela litzateke; hau da, organo betearazleari (AAEEko presidenteari eta bere Gobernuari) edo organo legegileari (AAEEko Parlamentuari).

Azkenengo betebeharrak honi loturik, Calafell Ferrák (2000: 108) ez-betetzearen hiru ezaugarriak adierazten ditu. Alde batetik, ez-betetzea AAEEak dituen edozein legezko betebeharren gainekoa izan daiteke. Beste alde batetik, legezko betebeharra EKK edota beste legeren batek inposatutakoa izan beharko da. Amaitzeko, lege mota guztiak barneratu beharko dira, bai estatu-mailakoak bai AAEEen mailakoak.

Bestalde, Espainiako interes orokorraren aurka joateari dagokionez, nabarmentzekoa da artikuluko honek 1978. urtean hura idazten ari ziren momentutik desadostasunak eragin zituela, Euskadiko Ezkerraren diputatua izan zen Letamendia

Belzuncek honakoa adierazi zuelarik Kongresuko Konstituzio Gaietarako eta Askatasun Publikoetarako Batzordean: *“La redacción de este párrafo quiere decir que una Comunidad Autónoma puede cumplir perfectamente las obligaciones que la Constitución u otras leyes le impongan, y, sin embargo, puede atentar gravemente al interés general de España, el cual no se entiende”*.

Gainera, hainbat autorek irizpide guztiz politikoa dela aldarrikatzen dute, adierazpenik sendoena Cruz Villalónek (1981) egin zuelarik, Espainiako interes orokorraren aurka joatearen egitatezko kasua honakoa zela adieraziz: *“un inciso que modifica por completo el sentido del artículo, ya que lo que en Alemania es un último recurso frente a una violación del derecho, aquí se convierte en una intervención que no necesita estar apoyada en ninguna infracción constitucional o legal, sino en razones de índole política libremente apreciables por el Gobierno y el Senado”*. Hau da, 155. artikulua aplikazioa bakarrik irizpide juridikoetan oinarritu beharrean, egitatezko kasu honen ezarpenarekin irizpide politikoa barneratzen dela aldarrikatu zuen.

Hainbat autore dira ideia honen alde agertu direnak. Gómez Orfanelek (2020), adibidez, Espainiako interes orokorrari buruz iritzia ematea edo haren urratzea aldarrikatzea egintza guztiz politikoa dela adierazten du. Ideia hau Urías Martinezek (2019: 105-106) garatzen du, esanez nahiz eta AAEE batek burututako ekimen politikoek ez urratu haren jardura lotzen duten arau legal zein konstituzionalik, artikulua adierazpenarekin koertzio estatalaren egikaritzea bilatzen dela. Gainera, aldarrikatzen du bigarren supostu honek alde batera uzten duela aurretiazko adierazpen judizial baten beharra, senatuaren gehiengoaren onarpenarekin Gobernu Zentralak burutzen duen balorazio politikoa baita, kontrol judizial baten menpe ez egonik. Beraz, honekin ondorioztatzen du ez dela beharrezkoa AAEE baten egiaztagarria eta objektiboa den jarrera errebeldea.

Horretaz gain, Gil-Robles Gil-Delgadok (1999) honakoa adierazten du: *“Es prácticamente imposible que una Comunidad pueda atentar gravemente al interés general de España sin infringir un precepto legal o una norma constitucional”*. Haren aburuz, EKren 155. artikulua printzipio konstituzional guztien oinarrian interpretatu behar da, interes orokorra ezin delarik momentuan dagoen Gobernuaren iritzia araberakoa izan. Horrela izatekotan, AAEEen autogobernurako eskubidea urratuko

litzateke, Estatuan momentu horretan nabarmentzen den orientazio politikoarengatik baldintzatuta geratuz.

Honi loturik, EKren 155. artikulua barneratzen dituen bi supostuen arteko harremanaren birformulaketa bat egin izan da. KAK, arestian aipatu dugun 2019ko uztailaren 2ko 89/2019 sententzian honakoa adierazten du: *“(...) diferencia el atentado grave al interés general de España respecto al primero de los mencionados, diferenciación que no debe entenderse como exclusión o contraposición entre ambos. El incumplimiento de concretos deberes constitucionales o legales puede deparar, en según qué casos, lo que también pueda llegar a considerarse un grave atentado al interés general. Este último, a su vez, no habría nunca de denunciarse al margen del derecho. Es decir, como una cláusula general habilitante para la intervención discrecional en la autonomía, en la que, con arreglo a apreciaciones políticas o de mera oportunidad, se prescinda de constatar la infracción de la Constitución y las leyes, lo que no se compadecería ni con el principio de estado de derecho ni con la garantía constitucional de la autonomía (arts. 1.1 y 2 CE) que son mandatos esenciales de nuestro ordenamiento constitucional”*. Beraz, hemendik ondorioztatu dezakegu Espainiako interes orokorraren kontra egitea ezin dela irizpide politikoaren arabera klausula gaitzailatzat hartu eta, Ballart Hernándezek (1987) adierazten duen moduan, ezin dela betebeharrak legal eta konstituzionalekiko independentea den egitatezko kasutzat hartu.

Hortaz, EKren 155. artikulua aplikazioa justifikatuko lukeen egitatezko kasu bakarra dagoela baieztatu dezakegu; betebeharrak konstituzional zein legezko betebeharren aurka egitea hain zuzen, zeinari, Vírjala Foruriak (2005: 92-93) adierazten duen moduan, Espainiako interes orokorra kaltetzearen ñabardura kualitatiboa ezarri dakioke. Izan ere, autorearen iritziz, betebeharrak legal edo konstituzionalen ez-betetzea une puntual baten emandakoa, dolo barik emandakoa... etab. izan daitekeen heinean, Espainiako interes orokorraren aurka egiteak egitatezko kasu horren ñabardura kualitatiboa suposatuko luke, obligazio horien ez-betetzea kontziente, doluzkoa, errepikakorra eta Estatu Zentralaren eta AAEEen arteko botere banaketa errespetatzearen aurkakoa izatekotan.

3.4.3. Koertzio neurriak: aplikazio prozedura

Koertzio estatalaren prozedura SEren 189. artikulua adierazten duenaren arabera da. Artikulu honen 1. parrafoak adierazten du, EKren 155. artikulua aplikazioan Gobernuak definitutako neurriak aplikatzeko Senatuaren baimena behar izatekotan, Ganberaren presidenteari proposatutako neurrien edukia eta irismena azaltzen duen idazkia aurkeztu beharko diola, baita AAEEren presidenteari errekerimendua egin izanaren justifikazioa eta honen ez-betetzearen justifikazioa.

Errekerimendua ez dago epe edo formari dagokionez mugatuta, baina Lafuente Balleren (2018: 107-110) arabera honako baldintzak bete beharko ditu: frogagarria izatea, salatzen diren ekintzak definitzea, horiek zuzentzeko saiakerak egin izana adieraztea eta AAEEko presidenteak errekerimenduari erantzuna emateko epea definituta egotea. Erantzuteko epeari buruz doktrina ez da ados jartzen, ezberdindu behar direlarik errekerimenduari erantzuteko eta errekerimendua betetzeko epeak, erantzuna ematea errekerimendua onartu edo ukatu egiten dela adieraztea litzatekeelarik bakarrik, Lafuente Balleren arabera 2 eguneko epearekin nahikoa delarik. Errekerimendua betetzeko epeari dagokionez; hau da, bertan zehazten diren neurriak betetzeko epea, doktrinaren gehiengoak adierazten du arrazoizkoa eta lortu nahi diren neurriekiko proportzionala izan beharko dela.

AAEEak, behin errekerimendua jasota eta horretarako definitutako epeen barruan, ekintza zuzentzailearen bat burutuko ez balu, Gobernuak, SEren 189. artikuluari jarraiki, Senatuaren presidenteari salaketa bat aurkeztu ahalko dio, neurrien edukia eta irismena adieraziz. Senatuak orduan, idazki hori AAEEtako Batzorde Nagusiari edo *ad hoc* eratutako Baterako Batzordeari igorriko lioke, horren ostean espedientea AAEEko presidenteari helaraziko litzaiokeelarik, hark alegazioak aurkezteko eta, nahi izanez gero, prozesuan zehar ordezkari izendatzeko.

Behin Gobernuaren salaketa eta AAEEko presidenteari alegazioak jasota, Batzordean Gobernuaren proposamena onartzea edo ukatzeari buruzko eztabaida hasiko litzateke, beharrezko baldintzak edo aldaketak formulatuz, proposamena onartzekotan Senatuaren Osoko Bilkurara igorriko litzatekeelarik. Osoko Bilkuran, proposamena eta zuzenketei buruz eztabaidatuko litzateke, nahi izanez gero, parlamentuko taldeen bozeramaileen parte-hartzearekin. Behin eztabaida amaituta bozketa burutuko litzateke,

Gobernuaren proposamena onartutzat hartzeko beharrezkoa izanik senatarien gehiengo osoa.

Hartu daitezkeen neurri konkretuei dagokionez, 3.3.1 atalean adierazi moduan, EKren 155. artikulua ez du zeintzuk izan daitezkeen zehazten, doktrinak garatu duelarik neurri horiek printzipio batzuen errespetuaren baitan definitu behar direla.

Calafell Ferrák (2000: 129), neurriak ez definitzea indeterminazio konstituzionaltzat hartzen du, Gobernuak eta Senatuak, AAEE baten eskutik egitatezko kasuren bat ematen den bakoitzean, kasuz kasu definitu beharko dituztelarik, neurri posibleen zerrenda itxia definitu ezin izatea eraginez. Hala ere, doktrinak neurri ezberdinak proposatu izan ditu.

Virgala Foruriak, esaterako, honakoak proposatu izan ditu: AAEEtako autoritateei instrukzioak ematea (ez-betetzea eman den materien gainekoak) eta ez-betetze baten ondorioz sortu ez diren efektuen berrezarpena edo baimenik gabeko jardura autonomikoak efektu juridikorik gabe uztea.

Calafell Ferrák (2000: 131-134), AAEEaren jardueraren Gobernu Zentralaren organoen ordezkari betearazpena edo betearazpen subsidiarioari edota presio neurriak edo blokeo ekonomikoari buruzko neurriak aurkeztu izan ditu, alde batera utziz Indar Armatuaren edota Segurtasun Kidego eta Indarren erabilera, nahiz eta aditu batzuek ordenamendu juridikoaren defentsan haien parte-hartzea justifikatu dezaketen.

Horretaz gain, beste neurrietako bat AAEEko organo batzuen disoluzio edo suspentsioa litzateke, nahiz eta azkenengo kasu honi dagokionez, doktrina ez den ados jartzen. Cruz Villalónek (1984), adibidez, adierazten du koertzio estatala batez ere AAEE bateko organo politikoaren Estatuko Organoengatikoko ordezkariaren bitartez egikaritzen dela, ordezkari hori momentu zehatz baterako edo berehalakoa ez izatekotan, suspentsioari buruz hitz egiten hasi beharko ginatekeelarik. Are gehiago, koertzio estatalak AAEEren Parlamentuaren disoluzioa ere eragin dezakeela adierazten du.

Gil-Robles Gil-Delgadok (1999), ordea, kontuan izanda koertzio estatalaren helburua AAEEek euren obligazioak betetzera derrigortzea dela, eta ez hura zein haren

organoak zigortzea, AAEEko organoen disoluzioa zein Estatuaren Organoengatikoko ordezkapena alde batera utzi behar direla adierazten du.

Amaitzeko, neurritzat AAEEren disoluzio edo suspentsioa hartu izan da ere. Kasu honetan, doktrinaren gehiengoak adierazten du, Aja Fernández (1985) horien artean egonik, gure ordenamendua osatzen duten printzipioak kontuan hartuta (autonomia printzipioa batez ere) ez dela posible neurri hau aplikatzea, ezta koertzio estatalaren bitarteko Autonomia Estatutuen modifikazioa, koertzio estatalaren aplikazioaren helburua AAEEak burutzen ez dituen ekintzak aurrera eramatea izan behar baita. Honi dagokionez, Pérez Royoren (2021) arabera, AAEEen disoluzioa egikaritzea ezin da boterea bereganatzen duenak jasotzen duen saritzat hartu behar, baizik eta benetan apartekoak diren eta neurri honen erabilerarik gabe Estatuaren gidaritza politikoa burutu ezin daitekeen egoeretan aplikatu beharreko neurritzat. Haren hitzetan, deszentralizatuak diren estatuetan disoluzioaren neurria ez litzateke erabili behar; izan ere, honen erabilera biderkatzeko arriskua egongo litzateke, demokrazia kaltetuz.

3.5. Espainiako Konstituzioaren 155. artikularen balizko konstituzio kontrakotasunaz

Aurreko ataletan aipatu moduan, Gil-Robles Gil-Delgadoren iritziz, (1999) EKren 155. artikularen erabileraren oinarrian ezohikotasuna dago; hau da, bakarrik erabili ahalko da autogobernuarekin bateragarriak diren gatazkak konpontzeko gainerako bideen bitartez ezinezkoa denean AAEE bere obligazioak betetzera behartzea. Hortaz, EKren 155. artikularen aplikazioa zentzu murriztailean burutu behar da, horrela ez jokatzekotan konstituzio kontrakotzat hartuko litzatekeelarik.

Artikulu honen aplikazioaren konstituzio kontrakotasuna ikuspuntu ezberdinetatik aztertu daiteke; hala nola, egitatezko kasuen aldetik edo koertzio neurrien aldetik.

3.5.1. Egitatezko kasuen balizko konstituzio kontrakotasuna: erabaki politikoa

Aurretiaz azaldu moduan, autore asko izan dira interes orokorraren aurka joatearen egitatezko kasua erabaki politiko hutsatzat hartu dutenak. Hala nola, Ridao

Martínek (2018: 174), zeinek esaten duen egitatezko kasu honek artikuluari zehazgabetasun maila nabarmen areagotzen diola, erabakiaren izaera politikoa indartuz eta kontrol juridikzionala zailduz. Urías Martínezen (2019: 105-106) arabera, EKren 155. artikulua ez da Legeen eta EKren jadanekotasuna bermatzeko mekanismoen bitarteko konponbide juridikoa, baizik eta AAEEen gaineko Estatuaren botere zentralaren nagusitasunean oinarritzen den konponbide politikoa. Hau da, Senatuak Gobernu Zentralari egozten dion ohiz kanpoko boterea litzateke, artikulua martxan jarriz guztiz baloratiboak eta objektiboki kontrolaezinak diren arrazoiengatik. Honi jarraiki, ondorioztatu daiteke bi egitatezko kasuak ez direla izaera berekoak: betebeharrak legal edo konstituzionalen ez-betetzea arrazoi juridiko bat den heinean, Espainiako interes orokorraren aurka egiten duten ekintza autonomikoak bakarrik politikoki hauteman daitezke.

Autore honen aburuz, Espainiako interes orokorraren aurka egiten duten ekintzak bakarrik politikoki hauteman ahal izateak formalki arrazoibide juridikoa erabiltzen duen jurisdikzio organo independente baten parte-hartzerik ez egotea dakar. Materialki, hautemate guztiz politikoa den heinean, inolako objektibotasun presuntziorik ez egotea dakar.

Horretaz gain, adierazten du EKren 155. artikulua aplikazioa jurisdikzionalki berrikusi ahal izateak ez dakarrela artikulua horrek organo politiko zehatzei egozten dizkien ahalmen guztiak materialki auzitegi baten bitartez berrikusi ahal izatea. Izan ere, orokorrean, KA egitatezko kasu horren aplikazioa konstituzionalki legezkoa den ondasun baten babesarekin erlazionatzea exijitzera mugatu izan da, guztiz formala den kontrola burutuz. Hau da, KAK ez luke Gobernuak eta Senatuak AAEE batek burututako ekintza Espainiako interes orokorraren aurkakotzat hartzearen gaineko baloraziorik egingo, baizik eta horretarako eskudunak diren organoek EKren 155. artikulua aplikazioa modu koherentean oinarritzen duten gaineko balorazioa, behar bezala justifikatuz zein ekintza eta zergatik hartzen diren interes orokor horren kaltegarritzat.

Motibazio bera erabiliko litzateke koertzio estatala legezko obligazio edo obligazio konstituzionalen ez-betetzean oinarrituko balitz, Gobernuak ez-betetze hori aski justifikatu beharko lukeelarik.

Amaitzeko, Urías Martínezek adierazten du konstituzionaltasunaren kontrol hori ez dela egitatezko kasuen gain hedatuko; baizik eta, ondorengo atalean azaldu moduan, ezarritako neurrien gain.

3.5.2. Koertzio neurrien balizko konstituzio kontrakotasuna: printzipioak ez errespetatzea

Jimenez Asensioren (2017) hitzetan, nahiz eta EKren 155. artikulua enuntziatu konstituzionala oso zabala izan, hartutako neurriak ez-betetzearen larritasunarekiko eta ez-betetzea burutu dutenek obligazioak betetzearen aurrean aurkezten duten jarrerarekiko proportzionalak izan beharko dira.

Horretaz gain, kontuan izan behar da, nahiz eta Legeak ez aurreikusi EKren 155. artikulua betearazteko neurri zehatzak, horiek 3.3.1 atalean azaldutako printzipioak errespetatu behar dituztela. Hori egin ezean, aplikatutako neurriak konstituzio kontrakotzat hartuko lirateke.

Horretaz gain, Gil-Robles Gil-Delgadok (1999) neurrien ezarpena zehatza eta puntuala izan behar dela adierazten du, ezin delarik modu iraunkor batean EKK debekatzen duen menpekotasun hierarkikoaren egoerara heldu. Gainera, nahiz eta artikulua honen aplikazioak Estatu Zentralaren eta AAEEen arteko harremana alderantzikatu Estatu Zentralaren alde, alderantzikatze honekin ezin da Gobernu Zentralaren AAEEen egitekoen subrogaziora heldu, ezta autogobernu eskubidea ezabatu. Hau da, helburua ez da AAEEei eskumenak kentzea, baizik eta horiek EKren eta Legeen arabera erabiltzera bultzatzea.

Honi loturik, Ballart Hernándezek (1987) adierazten du AAEEak Gobernuak aplikatutako neurri horietan konstituzio kontrakotasuna hauteman dezakeela eta ondorioz, konstituzio kontrakotasun errekurtsuaren bitartez KAra jo; zeinak, beharrezkotasun, proportzionaltasun, kasu zehatzerako egokitzapen eta eskubide autonomikoen gutxieneko interbentzioaren printzipioei jarraiki erabakiko du.

Gobernuaren ekintzen gainean, Gil-Robles Gil-Delgadok (1999) dio bakarrik Senatuaren onarpenarekin izango duela behin-behinean bereganatu dituen eskumenak

exekutatzeko baimen konstituzionala. Baimen honen baitan, Gobernuak burututako ekintzen gain errekurso administratiboa edo babes errekursoa tarteratu daiteke, betiere prozedura horiek aurkaratutako arau-hausteak jarraitzea aurreikusten badute. Hala ere, neurri horiek konstituzio kontroletik salbuetsita ez daudela adierazten du, errekurso horiek ebazteko prozeduran EKren 155. artikulua erabiltzearen Gobernuaren erabakia zein Senatuaren baimenari buruzko zalantzak sortu daitezkeelako, horiek konstituzio kontrakotasun errekursoaren bitartez jarraituko direlarik.

KAk, 2016ko apirilaren 28ko 83/2016 ebazpenean, Gobernuak, organo politiko eta ez organo administratibo moduan burututako ekintzak ekintza administratibotzat hartzea baztertzen du, ekintza horien kontrola jurisdikzio konstituzionalari dagokiola adieraziz. Hala ere, Gobernuak zehaztutako ekintza horiek beste organo edo autoriteren batek aurrera eramatekotan, kasu bakoitzean eskuduna den jurisdikzio arruntaren bitartez aurkaratu daitezkeela azpimarratzen du, nahiz eta gero jurisdikzio horrek lege-maila duten erabakien gain konstituzio kontrakotasun arazoa planteatu dezakeen.

Senatuaren egitekoari dagokionez, Gil-Robles Gil-Delgadok (1999) adierazten du honek AAEEak bere obligazioak betetzea behartzeko beharrezko neurriak onartzeko eskumena duela bakarrik. Hortaz, AAEEren obligazioak betearazteko behar hori ez egotekotan, existitzen ez den obligazio baten betetzea bilatzekotan edota alderdikoi hutsak diren ikuspuntuak interes orokortzat hartzekotan, Senatuak ez luke autogobernuaren esparruan sartzeko inolako babes konstituzionalik izango.

Ballart Hernándezek (1987) adierazten du Senatuaren onarpen hori konstituzio kontrolerako objektu izan daitekeela, bai ikuspuntu material batetik bai ikuspuntu formal batetik.

Ikuspuntu materialari dagokionez, Senatuak Gobernuak proposatutako neurriak baimentzea EKren 155. artikuluan barnebiltzen den egitatezko kasu bat burutu den gaineko iritzia aurkeztea den heinean, eta hortaz, EKren interpretazio bat burutzen ari den heinean, geroago KAk interpretazio hori konstituzio kontrakotzat har dezake. Hala ere, errealitatean KAk ez du egitatezko kasuei buruzko interpretazio materialik egiten.

Ikuspuntu formalaren aldetik, Senatuaren baimen horrek erregelamenduzko betebeharrak eta betebeharrak konstituzionalek definitutako prozedura jarraitu behar duen heinean, horiek ez betetzea EKren kontrakoa izateagatik deuseztasuna ekar dezake.

Konstituzio kontrakotasun hori bi bide ezberdinetatik aldarrikatu daitekeela adierazten du Ballart Hernándezek: eskumen gatazka positiboaren aldetik edota konstituzio kontrakotasun errekursoaren aldetik.

Ridao Martínek (2018: 182) adierazten duen moduan, garrantzitsua da konstituzio kontrakotasun errekursoari buruzko ñabardurak egitea, printzipioz Senatuaren baimena ez baita konstituzio kontrakotasun errekurso bat tartertzeko EKren 161.1.a) artikuluan aurreikusten den lege-indarreko xedapen arauemaile edo Estatuaren ekintza. Hala ere, doktrinak adierazi izan du, nahiz eta parlamentu izaera duen ekintza izan, EKren ez-ohiko garapen zuzena suposatzen duela; izan ere, horren bitartez AAEE baten Gobernuaren kontrol parlamentarioa egikaritzen da eta ez-ohiko izaera duten neurriak ezartzeko legitimitatea ematen da. Hori dela-eta, Senatuaren behin-behineko baimen horrek, efektu juridikoak sortzen dituen heinean, Estatu Autonomikoaren markoan instituzioen arteko harremanak nabarmen aldatu egiten ditu (eskuduntzen esparruan batez ere), doktrinak ondorioztatzen duelarik erabakia lege-indarreko erabaki batekin parekatu behar dela eta beraz, konstituzio kontrakotasun errekursoaren bitartez errekurritu daitekeela.

4. Analisi praktikoa: EKren 155. artikulua aplikazioa Katalunian

Behin EKren 155. artikulua oinarri teorikoa ikusita, garrantzitsua da aztertzea errealitatean artikulua honen aplikazioa zein izan den. Horretarako, hurrengo atalean azken urteetan entzutetsua izan den Kataluniako prozesu independentistaren baitan aztertuko da enuntziatu konstituzional hau.

4.1. Ibilbide kronologikoa eta jurisprudentziaren analisia

Kataluniako prozesu independentistan EKren 155. artikulua aplikazioa aztertu baino lehen, beharrezkoa da prozesuaren ibilbide kronologikoa egitea, aplikazioa testuinguru historikoan kokatzeko. Hasiera 2006ko uztailaren 19ko 6/2006 Lege

Organikoan, *Kataluniako Autonomia Estatutuari buruzkoan*, aurkitzen dugu. Bar Cendónen (2016: 188) arabera, nahiz eta estatutu hau 1979ko Estatutuaren erreformatzat aurkeztu, errealitatean askoz zabalagoa zen bai artikulu kopuruari bai eduki sustantiboari begira.

Lehenik eta behin, Boix Palopek (2017: 172) adierazten duen moduan, aipatzekoa da Kataluniako parlamentuan ordezkari gehien zeukaten bost alderdietatik lauk onartu zutela estatutua (CiU, PSC-CPC, ERC eta ICV); hau da, 135 diputatutik 120. Ondoren, estatutua Diputatuen Kongresura pasatu zen, zeinetan funtsezko aldaketak egin ziren, uziak murriztuz. Hala ere, nabarmen aldatu zen estatutu hau ere onartu egin zen, kasu honetan PP eta ERCren aurkapearekin. Senatuan estatutua antzeko proportzioan onartu zen ere. Amaitzeko, estatutua erreferendum bitartez onartu zen Katalunian, %73,90ko aldeko botoekin, nahiz eta parte-hartzea oso baxua izan, %49koa.

Estatutuaren onarpenaren aurka hainbat konstituzio kontraktasun errekurtsio tarteratu izan ziren: PPko 99 diputatuk, Valentziako Generalitateak eta Aragoi, Balear Uharte, Murtzia edo Errioxako Gobernu Kontseiluak, besteak beste.

Lau urte geroago, KAren 2010eko ekainaren 28ko 31/2010 sententzia kaleratu zen, zeinak PPko konstituzio kontraktasun errekurtsioa ebazten zuen, guztietatik nabarmenena izan zena. Nahiz eta KAK inoiz kaleratutako ebazpenik luzeena izan, Martínez Teruelek (2016) dio estatutua guztiz baliogabetua eta ebakia utzi zuela, ez zitzaion ezta konpondu nahi zen alderdiren baten itzalik sumatzen; hala nola, nazio kontzeptuaren garapena, katalan hizkuntzaren parekatzea edo justizian eskuduntza gehiagoren bereganatzea. Are gehiago, ebazpenak jokabide, ausardia edo ikuspuntu bat zigortzen zuela adierazten du; beste AAEE batzuen estatutuetatik kopiatutako artikulak onartzen ez baitzituzten, adibidez.

Gainera, Losada Trabada eta Pérez Royoren (2018) arabera, Kataluniako Autonomia Estatutua KAren bitartez PPK, Kataluniako Parlamentuak Diputatuen Kongresuarekin onartutako eta Kataluniako herritarrek erreferendum bitartez bozkatutakoaren gain inposatutakoa izaten jarraitzen du.

Bar Cendónen (2016: 189) arabera, KAren sententzia izaera identitarioko mobilizazio politiko handiaren hasierarako aitzakia izan zen, gizartean zegoen ezinegonari lotuta, murrizketa finantzario eta momentu horretako krisi ekonomikoa zela-eta hartutako neurriek eraginda. Izan ere, 2012ko irailean, Diadako manifestazio jendetsuarekin batera, Katalunian prozesu soberanistaren hasiera eman zen, zeinaren helburua AAEEren Espainiaren banaketa zen, Estatu independente bihurtzeko.

Hemendik aurrera hainbat saiakera eman ziren Kataluniako biztanleek independentziaren gainean erabaki ahal izatea lortzeko.

Lehenengoa 2013ko urtarrilaren 13ko Kataluniako Parlamentuaren 5/X Erabakia izan zen, *subiranotasun adierazpena eta Kataluniako herriaren erabakitzeko eskubideari buruzkoa*, KAren 2014ko martxoaren 25eko 42/2014 ebazpenak ezeztatzen zuena. De Miguel Bárcenaren (2018: 138-139) arabera, ebazpen honek burujabetza prozesua garatu ahal izateko esparru konstituzional bat sortzen zuen, erabakitzeko eskubidea bidezko xedetzat hartzen baitzuen.

Horretaz gain, 2014ko irailean 10/2014 Legea, *erreferendum gisakoak ez diren herri-galdeketei eta herritarren parte-hartzerako bestelako formei buruzkoa* eta 129/2014 Dekretua, *erreferendum gisakoa ez den herri-galdeketerako deialdiari buruzkoa* kaleratu ziren, KAren 31/2015 eta 32/2015 sententzien bitartez Kataluniako Generalitatea galdeketa formal bat egiteko aukeratik gabetuz, 31/2015 sententziaren 6. oinarri juridikoan adierazten delarik subiranotasunaren titulartasunari buruzko erabakiak EKk aurreikusitako bideen bitartez hartu behar direla, hortaz, kontsulta hauek ez direla AAEEen eskumenpekoak.

Geroago, 2014ko urriaren 31an, Kataluniako Generalitateak galdeketa informalerako herritarren parte-hartzerako prozesurako deialdia egin zuen azaroaren 9rako, 2014ko azaroaren 4ko probidentziaren eta KAren 138/2015 sententziaren bitartez kontsulta konstituzio kontraktatzat hartu zelarik, EKren 1.2 eta 2. artikuluekin zerikusia zuen kontsulta bat zen heinean, erabakia EKren 168. artikuluan aurreikusten den moduan hartu behar zela adieraziz.

9-N moduan izendatu zen gertakizuna eta gero, Bar Cendónek (2016: 189) adierazten du 2015eko irailaren 27an Generalitateko presidentek Parlamentua disolbatu eta hauteskundeetarako deia egin zuela, aldeko emaitzak Katalunian prozesu eratzaila legitimatuko zuelarik, 2015eko azaroaren 9ko 1/XI Erabakiaren onarpenaren bitartez, zeinak errepublikarra den estatu katalan independentearen sorreraren prozesu politikoaren hasiera aldarrikatzen zuen. Erabaki hau azaroaren 11ko KAren Probidentziaren bitartez eten zen, abenduaren 2ko KAren 259/2015 sententziak behin betiko ezeztatu zuelarik. Lafuente Ballek (2018:a 84) bere testuan adierazten du ebazpenak konstituzio kontrakotasuna EKren 1.1, 1.2, 2, 9.1 eta 168. artikuluen ez-betetzean oinarritzen duela.

Hemendik aurrera, De Miguel Bárcenasek (2018: 149-150) adierazten duen moduan, Kataluniako Generalitateak hainbat araudi argitaratu zituen etorkizuneko Kataluniar Errepublikaren eraketari lotuak; hala nola, abenduaren 4ko 16/2014 Legea, *kanpo ekintzari eta Europar Batasunarekiko harremanari buruzkoa* eta martxoaren 11ko 3/2015 Legea, *Zerga, Finantza eta Administrazio neurriei buruzkoa*.

2017ko irailaren 6an, 19/2017 Legea, *autodeterminazio erreferendumari buruzkoa*, eta 2017ko irailaren 8an, 20/2017 Legea, *Errepublikaren Iragankortasun Juridiko eta Fundazionalari buruzkoa* onartu ziren Kataluniako Parlamentuan.

19/2017 Legeak, De Miguel Bárcenaren (2018: 153-158) arabera, erreferenduma arautu eta bermatzeko erregimen juridikoa definitzen zuen, helburua kataluniar gizarteari estatu errepublikar eta independentea izan nahi zuen galdetzea zelarik, adieraziz baieztatu botoak ezeztatu baino gehiago izatekotan Kataluniako independentzia aldarrikatuko zela. Lege honen 9.1 artikulua arabera, erreferendumerako deialdia 2017ko urriaren 1erako egiten zen.

Lege hau onartzearekin batera, irailaren 6an Kataluniako Generalitateko presidentek eta haren Gobernuako kide guztiek 139/2017 Dekretua sinatu zuten, *Kataluniako autodeterminaziorako erreferendumaren deialdiari buruzkoa*. Honen aurka, Espainiako Gobernuak, EKren 161.2 artikuluan oinarrituta, konstituzio kontrakotasun helegitea tarteratu zuen, KAK, irailaren 7ko Probidentziaren bitartez izapidetzeko onartu zuelarik.

Hala eta guztiz ere, 2017ko urriaren 1ean erreferenduma ospatu zen. Hura saihesteko helburuarekin, Lafuente Ballek (2018a: 89) adierazten duen moduan, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren Fiskaltzak segurtasun kidegoei erreferendumarekin zerikusia zuten material guztiak konfiskatzeko eskatu zien; hala nola, hautestontziak edo boto-paperak. Horretaz gain, idazleak azaltzen du Generalitateak segurtasun indarren karga polizialak, zeintzuen ondorioz jende askok osasun-laguntza jaso behar izan zuen, Estatu Zentrala autoritarismo antidemokratikoaz jardun zuelaz akusatzeko erabili izan dituela. Hala eta guztiz ere, azkenean, %43,03ko parte-hartzearekin, baiezko botoen garaipena eman zen.

Urriaren 10ean, Carles Puigdemont Generalitateko Presidenteak Parlamentuaren Osoko Bilkuran erreferendumaren aldeko emaitzen adierazpena egin zuen, eta bertan aldebakarreko independentzia aldarrikapena sinatu zuten. Honen ostean, KAK urriaren 17an 114/2017 eta azaroaren 8an 124/2017 ebazpenak argitaratu zituen, lehenengoak Autodeterminazio Erreferendumari buruzko 19/2017 Legea eta bigarrenak Errepublikaren Iragankortasun Juridiko eta Fundazionalari buruzko 20/2017 Legea konstituzio kontraktatzat hartzen zituztelarik.

4.2. EKren 155. artikulua aplikazio momentua

Egoera honen aurrean, Lafuente Ballek (2018b: 79-81) adierazten duen moduan, Kataluniak independentzia aldarrikapena sinatu eta hurrengo egunean, Gobernu Zentralak, EKren 155. artikulua aplikatuz, Kataluniako Generalitateari bere betebeharrak konstituzionalak betetzeko errekerimendua bidali zion. Honen aurka, Generalitateko Presidenteak bi gutun bideratu zizkion Gobernu presidenteari, zeintzuetan Kataluniako independentzia aldarrikapena burutu izana ukatzen zuen eta elkarrizketa prozesu bati hasiera emateko jarrera aurkezten zuen, Gobernuko Presidentearekin burututako bilera baten bitartez.

Hala ere, Gobernuko Presidenteak, erantzun hauetatik Generalitateko presidenteak errekerimendua onartzen ez zuela ondorioztatu zuen. Kataluniako Parlamentuaren gehiengoak, bere aldetik, 2017ko urriaren 21ean aldebakarreko independentzia aldarrikapenaren alde bozkatu ostean Kataluniako Errepublika aldarrikatu

zuen (Lafuente Balle, 2018b: 79-81). Egun horretan bertan, Ministroen Kontseiluak (hemendik aurrera, MK) EKren 155. artikulua betearazteko helburuarekin, Senatuari Kataluniak betebeharraren konstituzionalen betetzeko eta Espainiako interes orokorraren babesa bermatzeko beharrezko neurrien proposamena egin zion, honek 2017ko urriaren 27an onartu zituelarik (Lafuente Balle, 2018b: 81). Hau izan zen EKren 155. artikulua aplikatzen zen lehenengoko aldia.

Hala ere, aipatzekoa da Katalunia ez dela Gobernu Zentralaren partetik EKren 155. artikulua aplikazioaren mehatxua jaso duen AAEE bakarra izan. Lehenengo saiakera 1989. urtean eman zen, Felipe González-en gobernu sozialistak Kanariar uharteetako AAEEari Europar Batasunarekiko zerga-betebeharrak batzuei aurre egiteari uko izanagatik horiek betetzeko errekerimendua bidali baitzion. Azkenean, Kanarietako Gobernuaren eta Gobernu Zentralaren artean akordio batera heldu zirenez, ez zen artikulua hau aplikatu (Público, 2017).

Horren ostean, Euskal Herriari EKren 155. artikulua aplikazioaren mehatxua egin zitzaion, bertoko presidentea zen Ibarretxek aurkeztutako Ibarretxe Planaren konstituzio kontraketan oinarrituta, nahiz eta ez zen inolako pausurik eman, Eusko Jaurlaritzak amore eman baitzuen (Ríos Jaime, 2015).

4.2.1. Betekizun formalak

Bilakaera historikoaren atalean aztertu izan den moduan, Senatuak, 2017ko urriaren 27an EKren 155. artikulua aplikazioa bermatzeko Gobernuak proposatutako neurriak onartu zituen. Atal honetan, EKren 155. artikulua aplikatzeko bete behar diren betekizun formalen aurkezpena burutuko da, beste atal baten praktikan bete zirenei buruzko analisia egingo delarik.

EKren 155. artikulua jarraiki, lehenik eta behin, Gobernu Zentralak, MKren bitartez, egitatezko kasua betetzen ez duen AAEEari hura betetzeko errekerimendua bidali beharko dio. Kataluniako prozesu independentistaren kasuan, Kataluniako Generalitateko presidenteari errekerimendua MKk 2017ko urriaren 11an sinatutako Akordioan formulatzen zen. Akordio horretan, Kataluniako presidenteari Kataluniako AAEEak betebeharraren konstituzional eta legalak betearaztea errekeritzen zitzaion,

“trantsizio nazional” moduan definitutako prozesuaren baitan burututako ekintzen konstituzio kontrakotasuna zela-eta, adieraziz ekintza horiek Espainiako Estatuaren interes orokorra larriki kaltetzen zutela ere. Hortaz, Ridaó Martínek (2018: 185) adierazten duen moduan, Akordioak Kataluniako Parlamentuaren urriaren 10eko adierazpena EKren 155. artikulua aplikazioa martxan jartzen duen egitatezko kausatzat hartzen zuen.

IV. puntuak Kataluniako Generalitateak KAren ebazpenen ez-betetzeen aurrekariari egiten zion erreferentzia, 2015eko abenduaren 2ko KAren 259/2015 ebazpena aipatuz, zeinak adierazten zuen ez-betetze horiek Kataluniako Parlamentuaren agintearen irismena eta Estatuko organoen (horien artean KAren) legitimitatea kontrajartzen zituela: *“contrapone el supuesto alcance del «mandato democrático» recibido por el Parlamento de Cataluña en las elecciones de 27 de septiembre de 2015 o el carácter «legítimo y democrático» del Parlamento de Cataluña (...) a la legalidad y la legitimidad de las instituciones del Estado, en particular de este Tribunal Constitucional, al que se considera directamente «carente de legitimidad y competencia»”*.

Honi jarraiki, EKren 155. artikulua aplikatzeko arrazoiak aurkezten zituen errekerimenduak. Horrela, adierazten zuen prozesu sezesionistaren baitan, Kataluniak, indarrean zegoen ordenamendu juridikoa ez errespetatzeagatik Gobernu Zentralak aurkatutako hainbat ekintza burutu zituela, horien artean barneratzen zituelarik: 19/2017 eta 20/2017 Legeak argitaratzea (horiek konstituzio kontrakotzat hartu zirelarik KAren 114/2017 eta 124/2017 ebazpenen bitartez), eta autodeterminazio erreferendumaren deialdiaren eta hori aurrera eramateko beharrezko arauen onartzea.

Horretaz gain, Akordioan adierazten zen Kataluniak ez zuela Nazioarteko Zuzenbidearen baitan inolako babesik jaso, horretarako autodeterminazioari buruz hitz egiten zuten Nazio Batuen Erakundearen hainbat ebazpen aipatuz, 1960ko abenduaren 14ko 1514 (XV) eta 1970eko urriaren 24ko 2625 (XXV) Erabakiak, besteak beste; zeintzuetan adierazten den ez dela Zuzenbidezko Estatua gailentzen den lurralde zati baten autodeterminazio eskubidea onartzen. Gainera, Zuzenbidearen Demokraziarako Europar Batzordeari aipamena egiten zion, zehaztuz honek 2017ko ekainaren 2an Kataluniako Generalitateko Presidenteari bidalitako gutunean adierazten zuela

erreferendum oro EKren eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren errespetuan deitua eta burutua izan behar dela.

VIII. puntuak Kataluniako Generalitatearen independentzia aldarrikapenari erreferentzia egiten zion, adieraziz debeku judizialak kontuan hartu gabe antolatutako erreferendumentik ondorioztatzen zen aldarrikapen hori ilegala izan zela eta inolako garantiarik, eroldarik, independentea zen hauteskunde-administrazioarik, kontrol juridikorik eta erakunde-kanpaina inpartzialik gabekoa.

Hurrengo puntuak EKren 155. artikulua aplikatzeko justifikazioa aurkezten zuen: urriaren 1eko erreferendumerako deialdia eta horren ondoriozko Kataluniaren independentziaren aldarrikapena. Puntu honetan beraz, errekerimenduaren hedadura zehazten zen.

Akordioaren xedapenetan honakoa eskatzen zitzaion Kataluniako Generalitateko presidenteari: bai berak, 2017ko urriaren 10ean Kataluniako Parlamentuan burututako adierazpenaren bitartez, bai Kataluniako Generalitateko beste edozein autoritatek, Kataluniaren independentzia aldarrikapena burutu izana baieztatzea edo ukatzea, 2017eko urriaren 16ko 10:00ak baino lehen, erantzuna baiezkoa edo ezezkoa ez zen besteren bat izatekotan, aldarrikapen hori ezeztatze eta aldarrikapen hori aurrera eramateko edozein ekintza eteteko errekeritzen zitzaiolearik. Gainera, adierazten zitzaion urriaren 19ko 10:00ak baino lehen errekerimenduaren betetze osoa burutu izanari buruzko jakinarazpena egin behar zuela.

Akordioari amaiera ematen zitzaion hau guztia ez betetzekotan Gobernu Zentralak EKren 155. artikulua aplikatuz Senatuari betebeharrak konstituzional eta legalak betetzeko eta Espainiako interes orokorra babesteko beharrezko neurriak baimentzeko eskakizuna egingo ziola adieraziz. Atal honi dagokionez, Ridaó Martínek (2018: 186) dio Akordio honek betebeharrak konstituzionalak betearazteko eta interes orokorra babesteko neurri konkretuak zerrendatu beharrean, beharrezkoak zirenak aplikatuko zirela adierazten zuela. Haren iritziz, kontuan izanda geroago Senatuak baimendu zituen neurrien larritasuna, Akordioaren neurrien zehaztapenaren omisioa ez zen EKren 155. artikuluen aplikaziorako justifikazioaren oinarritzearekin bat etortzen, hau betekizun formalen aldeko akats larritzat hartuz.

Errekerimenduan adierazitako datan; hau da, urriaren 16an, Carles Puigdemont Kataluniako Generalitateko presidentea honi erantzuna eman zion, Gobernu Zentralaren EKren 155. artikulua aplikatzeko borondateak harritzen zuela adieraziz eta erakunde katalanen partetik independentzia aldarrikapenik egin ez zela esanez. Gainera, Kataluniako Parlamentuko presidentea urriaren 1eko kontsultatik ondorioztatzen ziren efektuak publikoki eta modu nabarmen batean eten egin zituela adierazten zuen, Estatu Espainiarraren eta Kataluniaren artean elkarriketa bat izateko eskakizunaren bitartez gatazkari konponbidea emateko helburua adierazi nahi izan zuela azalduz (Lafuente Balle, 2018b: 80).

Honen aurrean, Espainiako Presidentea zen Mariano Rajoyren erantzuna elkarriketa bat izatearen kontrakoa izan zen, hori ospatu baino lehen EKren eta Kataluniako AAEEren Estatutuaren legezkotasunenganako buelta beharrezkoa zela adierazten baitzuen. Amaitzeko, urriaren 19an, Puigdemontek adierazi zuen Gobernu Zentrala elkarriketa bat burutzearen kontra eta koertzioa egikaritzearen alde agertzen zen heinean, Kataluniako Parlamentuak independentzia aldarrikapenaren adierazpen formalaren bozketarekin jarraituko zuela.

Honen ostean, urriaren 21ean MK bildu egin zen, eta onartutako PRA/1034/2017 Akordiotik ondorioztatu daitekeen moduan, Kataluniako presidentea egindako adierazpenak ez zituzten kontuan hartu. Ridaó Martínek (2018: 185) adierazten duen moduan, errekerimendua bakarrik baiezkoa edo ezezkoa zen erantzun bat aurreikusten zuen ideian babestuta, Gobernu Zentralak Kataluniako Presidenteari egindako errekerimendua ez onartutzat hartzen zuen.

Albertí Rovirak (2018: 11) adierazten duen moduan, Akordio hori sinatu zenetik 6 egunera, urriaren 27an, Senatuak, Gobernu Zentralak proposatutako neurriak onartu zituen, egun horretan bertan Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Senatuan EKren 155. artikuluen aplikazioa izapidetzen ari ziren bitartean, urriaren 26 eta 27an Kataluniako Parlamentuko Osoko Bilkura bildu zen. Bertan, Kataluniako Errepublikaren Konstituzioaren Adierazpena zen ebazpen-proposamen bat onartu zuten, zeinetan Katalunia Zuzenbidezko Estatu independente, subirano, demokratiko eta sozialtzat hartzen zuten.

Urriaren 27ko Senatuaren Erabakiari dagokionez, honek SEren 189. artikulua Gobernu Zentralak proposatzen zituen neurriak aplikatzeko baimena emateko betekizun formalak aurreikusten zituen. Horiek izanik, 3.3.3 atalean aipatu moduan, Gobernu Zentralak Ganberaren presidenteari proposatutako neurrien edukia eta irismena azaltzea, errekerimendua egin izanaren eta horren ez-betetzearen justifikazioa, Baterako Batzordearen eraketa, AAEEko presidenteari alegazioak aurkezteko zein ordezkariak izendatzeko aukera ematea eta Senatuaren Osoko Bilkuran erabakia eztabaidatzea, besteak beste.

Behin aztertuta EKren 155. artikulua aplikazioan Kataluniako prozesu independentistan eman ziren pausu guztiak, 4.3 atalean prozesu honetan konstituzio kontrakoak izan ziren ekintzen identifikazioa burutuko da.

4.2.2. Betekizun materialak: ezarritako neurriak

Aurreko atalean azaldu bezala, 2017ko urriaren 27an Senatuaren Osoko Bilkurak MKren PRA/1034/2017 Akordioaren onarpenaren bitartez, Gobernuak, EKren 155. artikuluari jarraiki proposatutako neurriak onartzen ziren.

Neurri horiek, Albertí Rovirak (2018: 9) azaltzen duen moduan, 5 atal ezberdinetan sailkatu daitezke, nori zuzenduta daudenaren arabera.

Lehenengo atalean Kataluniako Generalitateko Presidenteari, Presidenteordeari eta Gobernu Kontseiluari bideratutako neurriak aurkitzen ditugu. Lafuente Ballek (2018b: 83) adierazten duen moduan, neurri horiek goi-kargu horien kargu-uzteari buruzkoak ziren, euren funtzioak Gobernu Zentralaren esku geratuz. Horretaz gain, Gobernu Presidenteari Kataluniako Parlamentua disolbatzeko eta Senatuak neurriak onartzeko momentutik 6 hilabeteko epean hauteskunde autonomikoen deialdia egiteko eskatzen zitzaion.

Bigarren ataleko neurriak Kataluniako Gobernuko Administrazioari bideratzen zitzaizkion. Lafuente Ballek (2018b: 83) aurkezten duen moduan, organo honek antolaketa administratibo arrunt moduan jarduten jarraituko luke; baina momentu honetatik aurrera, Gobernu Zentralaren aginduen menpe. Honi jarraiki, Gobernu

Zentralari beharrezkotzat jotzen zituen xedapen eta aginduak emateko, komunikazio edo aurretiazko baimenerako erregimenak zehazteko, Akordioaren aurkakoak diren xedapen, egintza edo ebazpen autonomikoen deuseztatzeak edo horien efektu juridikoak ukatzea erabakitzeke eta diziiplina-erantzukizunak galdatzeko eskumena ematen zitzaion.

Hirugarren ataleko neurriak jarduera administratiboko esparru zehatz bati bideratzen ziren; segurtasun eta ordena publikoaren, gestio ekonomiko, finantzario, zerga-gestio eta aurrekontu-gestioen eta telekomunikazio, komunikazio elektronikoko eta ikus-entzunezko komunikazioaren esparruetan neurri konkretuak ezarriz. Aipatzekoa da segurtasun eta ordena publikoaren esparruan, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen ezartzea aurreikusten zela, Kataluniako polizia autonomikoarekin koordinatuta jardunez edo hura ordezkatzuz.

Laugarren ataleko neurriak Kataluniako Parlamentuari bideratzen zitzaizkion. Neurri hauek, alde batetik Parlamentuko Presidenteari Kataluniako Generalitateko Presidentetzarako hautagaia proposatzea edo inbestidura-eztabaida ospatzea debekatzen zuten. Horretaz gain, Gobernuak izendatutako organoen ekintzen gaineko Parlamentuaren kontrol funtzioak aplikaezinak bilakatzen ziren, jarraipen eta kontrol funtzio hauek Senatuak izendatutako organoari atxikitzen zitzaizkiolarik. Gainera, akzio politikoa, Gobernu-akzioa zein adierazpen instituzionalak sustatzeko Parlamentuaren ebazpen-proposamenak ezin zirela aurreikusitako neurrien garapen eta betearazpenerako izendatutako autoritateei bideratu adierazten zen, ebazpen-promosamen horiek EKrekin, Autonomia Estatutuarekin eta KAren ebazpenekin bat egin behar zutelarik. Amaitzeko, atal honek Kataluniako Parlamentuak botere legegilea egikaritzen jarraitu zezakeela aurreikusten zuen, aurreikusitako neurrien zein horien presupostu, objektu eta helburuaren aurka zihoazen ekimenak aurrera eramanez ezingo lituzkeelarik.

Azkenik, bosgarren atalean zeharkako izaera zuten neurriak barneratzen ziren, askotariko alderdiei buruzkoak, hala nola: Gobernu Zentralak sortu edo izendatutako organo edo autoritateak aurreikusitako eskumen, ahalmen edo funtzioen egikaritzan estatu-mailako zein autonomia-mailako legeei atxikitzea; sailen, erakundeen eta entitateen eraldaketa, hauek antolatzeke eskumena Gobernu Zentralak izendatutako organo zein autoritateek eskuratuz eta, diziiplina erregimenarekin zerikusia zuten neurriei dagokionez, Akordioan aurreikusitako neurrien ez-betetzea EK eta Estatutuarenganako

leialtasun betebeharraren ez-betetzetat ulertzea, Gobernu Zentralaren xehatze ahalmenak ez lukeelarik Ministeritza Fiskalaren jarduera oztopatuko, honek ez-betetzetan erantzukizun penala susmatzekotan.

Albertí Rovirak (2018: 11) aurkezten duen moduan, Akordioak neurri hauek agindutako hauteskudeen bitartez osatutako Generalitateko Gobernu berriaren sorrerarekin desagertzea aurreikusten zuen.

4.3. Konstituzio kontrakoak diren ekintzak

4.3.1. Formazko ez-betetzeak

Behin Kataluniako prozesuan EKren 155. artikulua aurreikusten dituen pausuak emanda, Legeak aurreikusten dituen betekizun formal guztien betetzea eman zen edo ez aztertu behar da. Horretarako, alde batetik doktrina edukiko da kontuan eta bestetik, Kataluniako Parlamentuak 2018ko urtarrilaren 10ean tarteratutako 143/2018 errekurtsioa.

Albertí Roviraren (2018: 13-14) aburuz, Kataluniako prozesuan errekerimenduaren faseak haren esanahia galdu zuen, betebeharrak eta baldintzei lotutako arazo larriak aurkezten baitzituen, artikulua aplikazio prozesuan zuen funtzioa kolokan jarritz. Haren hitzetan, errekerimenduaren faseak berebiziko garrantzia zuen; alde batetik, EKren 155. artikulua aplikazioa justifikatzen duen egitatezko kasua definitzen zuelako, honen bitartez gatazkaren terminoak mugatzen zirelarik eta bestetik, estatuaren ez-ohiko botereak aplikatuzetik saihesteko helburuarekin aldean arteko aurretiazko eztabaida burutzeko aukera aurkezten baitzuen.

Lehenik eta behin, Albertí Rovirak (2018: 16) Gobernu Zentralak Puigdemonten erantzunak kontuan hartu ez zituela argudiatzen du, zeintzuetan Kataluniako independentzia aldarrikatu ez zuela adierazten zuen eta Gobernu Zentraleko Presidentearekin burututako batzar baten bitartez elkarrizketa prozesu bat irekitzeko nahia aurkezten zuen. Honi loturik, 143/2018 errekurtsioak SEren 189. artikuluan aldarrikatzen den hasierako errekerimenduari jaramonik egin ez zitzaionaren justifikazioa *expressis verbis* burutu behar zela argudiatzen zuen; hau da, errekerimenduaren existentzia eta AAEEren ez-betetzea espresuki justifikatuz. Horrela egin ez zenez,

urriaren 27ko Senatuaren Akordioa EKk adierazitako prozedura ez errespetatuz burutu zela salatzen zuen.

Are gehiago, Albertí Rovirak (2018: 14-15) fase honetan errekerimenduaren prozeduraren gaineko oinarrizko betebeharrak batzuk bete ez zirela argudiatzen du. Izan ere, MKk urriaren 11an burututako errekerimenduaren eta urriaren 21ean onartutako Akordioaren artean inkongruentziak sumatzen ditu, hasierako errekerimendua Kataluniako Generalitateak bere autoritatearen batek Kataluniaren independentzia aldarrikapena burutu izana baieztatu edo ukatzera mugatzen zelako; baiezkoa edo ezezkoa ez den beste erantzun bat egotekotan hura baiezkotzat hartuko zela adieraziz, eta baiezkoa izatekotan, aldarrikapen honen baliogabetzea eta honi lotuta dauden ekintza guztien etetea galdatuz. Ideia hau Lafuente Ballek (2018b: 94) mantentzen du ere, adieraziz independentzia aldarrikapena errekerimenduaren objektua zela, helburua aldarrikapen horren baliogabetzea izanik.

MKk burututako Akordioak ordea, errekerimenduaren objektua zabaldu egin zuen, bai hasierako helburuari zein EKren 155. artikulua aplikazioa justifikatzen zuen ez-betetzeari zegokionez; hala nola, ez-betetzea Kataluniako AAEEren Gobernuaren zein Parlamentuaren goi-organismoek burututako ez-betetze ageriko eta setatsua izan zela adieraziz, eta ez-betetze horrek, behin eta berriz modu kontziente eta errebelde baten KAK aurkeztutako ebazpenen aurka joanez prozesu sezesionista martxan jarri zuela argudiatuz, Espainiako interes orokorra larriki kaltetuz. Horretaz gain, 19/2017 eta 20/2017 Legeen eta urriaren 1eko erreferendumaren bitartez EKren oinarriak diren Estatuaren subiranotasunaren eta osotasunaren aurka joaten zela arrazoitzen zuen, honek Kataluniaren garapen ekonomikoa eta ongizatea kaltetzen zuelarik.

Ikus daitekeen moduan, arrazoi guzti hauek hasierako errekerimenduan azaldutakoak baino askoz gehiago dira, bertan ez aurreikusteak neurri horiek instituzioen arteko elkarriketaren parte izan ezin izatea eragin zuelarik. Gainera, Akordioan proposatzen ziren neurriak errekerimenduan proposatutakoak gainditzen zituzten, hasierakoak independentzia aldarrikapena eta aldarrikapen hori efektiboki betetzeko jarduerak bertan behera uzteari buruzkoak zirelarik. Inkongruentzia honek aldean arteko elkarriketari oztupoak jartzen zizkion heinean, prozesuaren akats formaltzat hartu da ere (Albertí Rovira, 2018: 15).

Honetaz gain, 143/2018 errekursoan errekerimenduak oso nabarmena den formazko akats bat aurkezten zuela aldarrikatzen zuen. Kataluniako Parlamentuaren aburuz, bertatik ezin ziren argitasunez ondorioztatu Kataluniako Generalitateak galdera ez erantzuteagatik aplikatu behar ziren neurriak, kontuan izanda geroago aplikatutakoek ez-ohiko garrantzia eskuratu zutela. Errekursoaren aburuz, omisio ikaragarri honek ez zuen EKren 155. artikulua aplikatzeko prozeduraren oinarritzearekin bat egiten.

Aurreko guztiaz aparte, Vitró Castellsen (2019: 175) aburuz, SEren 189. artikulua tartean dagoen AAEEren Presidenteari alegazioak aurkezteko eta, prozesuan pertsonalki parte-hartu nahi ez izatekotan, ordezkari bat izendatzeko aukera ezartzen zuen. Honi jarraiki, urriaren 27an, Generalitateko Presidenteak haren alegazioak jasotzen zituen idazkia igorri zion Senatuari, eta Generalitateko Gobernuaren Madrileko delegatua zen Ferran Mascarrell izendatu zuen ordezkari. Honen ostean, Senaturen mahaiak eta Komisioaren bozeramaileek izendatutako pertsonaren interbentzioa errefusatu zuten, arrazoitu gabe, honen aurrean Generalitateko Presidenteak bi senatari izendatu behar izan zituelarik alegazio horien defentsa burutzeko. Ekintza honekin AAEEK Senatuan ordezkari bat izateko eskubidea zabarkeriaz urratzen zen, honek Senatuaren deliberazio prozesuaren betekizun formal baten ez-betetzea suposatzen duelarik.

4.3.2. Ez-betetze materialak

Behin betekizun formalen ez-betetzeak aztertuta, beharrezkoa da Kataluniako AAEEak betebeharrak konstituzional eta legalak betetzeko eta Espainiako interes orokorra errespetatzeko Senatuak beharrezkotzat hartutako neurriek betebeharrak materialak betetzen dituzten edo ez aztertzea.

Azterketa honetan, ezberdindu behar dira alde batetik, EKren artikuluko konkretuak urratzen zituzten neurriak; eta bestetik, printzipioak urratzen zituztenak. Horretarako, kontuan izanda Senatuaren Akordioak neurriak atal ezberdinetan taldekatzen zituela, urraketan azterketa atalka burutuko da ere.

Kataluniako Generalitateko Presidentearen eta haren Gobernu Kontseiluko kideen kargu-uzteari dagokionez, 143/2018 errekursoak horiek EKren 2. artikuluan aurreikusten den autonomia printzipioa urratzen zutela adierazten zuen, EKren 155.2 artikuluan

aurreikusten den AAEEko autoritateei instrukzioak ematearen ideia baino horien kargu-uztea aurreikusten ez dela aldarrikatuz. Horretaz aparte, Bernardí i Gil-ek (2019: 28) EKK definitutako erregimen parlamentarioa kaltetzen zela azaltzen du; izan ere, EKren 152.1 artikuluari jarraiki, AAEE bateko presidentea bertako Parlamentuko kideak diren artean aukeratzen da, gero hark Gobernu Kontseiluko gainerako kideak izendatzen dituelarik, Gobernu Zentralak ez duelarik horiek izendatzeko zein kargu-gabetzeko eskumenik.

Gainera, errekurtsioak azaltzen zuen moduan, kargu-gabetzeko kausak *numerus clausus* dira, horien artean EKren 155. artikulua aplikazioan Estatuko autoritate baten erabakiaren bitartez burututakoa aurreikusten ez delarik. Hortaz, neurri hauen aplikazioak, Vintro Castellsek (2019: 179) azaltzen duen moduan, EKren 23. artikuluan aurreikusita dagoen kargugabetuen parte-hartze politikorako eskubidearen aurka egiten zuten. Era berean, herritarren kontra egiten zuen ere; neurri honen aplikazioarekin, instituzio autonomikoen izendapenak ez zirelako artikulua horretan aurreikusten den parte-hartze politikorako oinarritzeko eskubidearen egikaritzan Kataluniako herritarrek aurkeztutako borondatek igortzen.

Horretaz gain, legeak zehaztutako epaile arrunterako eskubidea barneratzen duen EKren 24. artikulua urratzea ematen zen ere, Gómez Orfanelek (2020: 364) adierazten duen moduan, Generalitateko Presidentearen eta Gobernu Kontseiluko kideen kargu-uztearen erabakiaren ondorioz forudun egoera galtzen baitzuten, haiek epaitzeko eskudunak diren organoen berehalako aldaketa ematen zelarik. Bernardí i Gilen (2019: 28) arabera, kasu honetan legeak zehaztutako epaile arrunterako eskubidearen ez-betetzea bereziki kaltegarria bilakatzen zen, kontuan izanda EKren 155. artikulua aplikatzeko egitatezko kasutzat hartzen ziren ekintzak ez-betetze penaltzat hartu zitezkeela.

Gainera, Ridao Martínek (2018: 190-191) EKren 147. artikulua (zeinak Estatutua definitu eta haren edukia zehazten duen) eta legezkotasun eta hierarkia normatiboaren printzipioen urraketak ematen zirela azaltzen du. Izan ere, MKK proposatutako neurriak onartzen zituen Senatuaren Akordioa Errege Dekretu baten bitartez sartu zen indarrean, goragoko lege-lerrunean kokatzen zen eta EK garatzen zuen Kataluniako Estatutuari gailenduz.

Lehenengo neurri hauen analisiarekin amaitzeko, 143/2018 errekursoak proportzionaltasun printzipioa errespetatu ez zela adierazten zuen, ezarritako neurriak ez baitzuten independentzia aldarrikapen bat ekiditeko egoki zein beharrezkotzat hartzen, MKk ezta Senatuak ezarritako neurrien eta horien bitartez betearazi nahi zen helburuaren arteko konexiorik egiten ez zutela adieraziz; eta beraz, Presidentearen eta haren Gobernuako kideen kargu-uztea zigor soil moduan eratzen zela ondorioztatuz.

Azkenengo honi dagokionez, Albertí Rovirak (2018: 18) proportzionaltasuna beharrezkotasun eta egokitasun baldintzen baitan neurtu behar zela adierazten du, kontuan izanda neurriak Kataluniako Generalitateak independentzia aldarrikapena burutu zuen gaineko erantzuna jasotzera eta erantzuna baiezkoa izatekotan, ordena konstituzionala berrezartzera bideratu behar zirela, errealitatean definitutako neurriak zehazten zen helburua betearazteko gehiegizkotzat hartuz. Izan ere, autoreak errekerimenduaren helburua kaltegarriagoak ez ziren beste neurri batzuen bitartez betearazi zitekeela ondorioztatzen du. Hau eskubide autonomikoen gutxieneko interbentzioaren printzipioarekin lotu daiteke, 143/2018 errekursoak printzipio hau errespetatzen ez zela ondorioztatzen zuelarik, kalte gutxiago sortzen zuten bestelako neurriak aplikatu ahalko zitezkeelako; hala nola, AAEEen organoen ekintzen KAren bitarteko kontrola edota ohiko jurisdikzioaren bitarteko kontrola.

Kataluniako Generalitateak eta bestelako entitate autonomiko batzuek burututako ekintzen gain erregimen juridiko berezia ezartzen zuten neurriei dagokionez, 143/2018 errekursoak konstituzio kontraktotasun zantzuak 3 neurri ezberdinen gain sumatzen zituen: Kataluniako Generalitatearen zenbait ekintzen gain aurretiazko baimen zein komunikazio erregimena barneratzean, Akordioaren aurkakoak ziren xedapen, egintza zein ebazpen autonomikoen erabateko deuseztasunean eta haren aurka zihoazen Kataluniako Generalitateko Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen eta egintzen efektu juridikoak ukatzean.

Kataluniako Generalitatearen zenbait ekintzen gain aurretiazko baimen zein komunikazio erregimena barneratzearen neurriei dagokionez, Bernardí i Gilek (2019: 36) adierazten duen moduan, erakunde katalanek Akordioak burutzeko erregimena 2010eko abuztuaren 3ko 26/2010 Legearen 13. artikulua eta hurrengokoek aurreikusten duten heinean, neurri horiek legezketasun eta hierarkia normatiboaren printzipioak larriki

kaltetzen zituzten, arestian azaldu moduan, lerrun baxuagoko arauak ezin baitute goragokoen kontra egin. Honi jarraiki, EKren 155. artikulua bezalako ez-ohiko tresna bat ordenamendu juridikoa aldatzeko erabili ezin daitekeela aldarrikatzen du.

Akordioaren aurkakoak ziren xedapen, egintza zein ebazpen autonomikoen erabateko deuseztasuna ezartzen zuten neurriak EKren 9.3 artikulua aurreikusten duen segurtasun juridikoaren printzipioa urratzen zutela aldarrikatzen du Ridaó Martínek (2018: 194), neurri honek egintza juridikoen eraginkortasun erregimenaren funtsezko eraldaketa bat suposatzen zuen heinean, Estatuko eta AAEEko ordenamenduetako oinarrizko arauetan ezarritakoaren kontra joanez, herritarren gain efektuak eragiten zituelarik ere.

Honi loturik, KAren 46/1990 sententzia, 1990eko martxoaren 15ekoa dugu, zeinak segurtasun juridikoaren printzipioari buruz honakoa adierazi zuen, hitzez hitz: *“La exigencia del artículo 9.3 relativa al principio de seguridad jurídica implica que el legislador debe perseguir la claridad y no la confusión normativa, debe procurar que acerca de la materia sobre la que se legisle sepan los operadores jurídicos y los ciudadanos a qué atenerse, y debe huir de provocar situaciones objetivamente confusas”*. Beraz, sententzia honetatik ondorioztatu daitekeen moduan, segurtasun juridikoaren printzipioak legegileak zehaztasun normatiboa bermatu behar zuela adierazten du, herritarren artean nahasmen egoerak saihesteko.

Neurri hauekin amaitzeko, 143/2018 errekursoak adierazten zuen Akordioaren aurka doazen Kataluniako Generalitateko Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen eta egintzen efektu juridikoak ukatzeari dagokionez, Kataluniako Autonomia Estatutuaren 65. artikulua esaten duen moduan eta arauen publizitate printzipioari jarraiki, Kataluniako legeak Kataluniako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar zirela. Hori dela-eta, Akordio honek Estatutuak dioenaren aurka joateak aurreko puntuan azaldutako EKren 9.3 artikuluko publizitate printzipioaren aurka zihoan kasu honetan ere.

Kataluniako Gobernuaren eta Administrazioaren gain aplikatutako neurriekin amaitzeko, jarduera administratiboko esparru zehatz bati bideratzen zitzaizkien neurrien arloan, segurtasun eta ordena publikoaren aldeko neurriei aipamena egin behar zaie.

143/2018 errekursoak adierazten zuen moduan, EKren 155. artikulua ez zuen Estatuaren eta AAEEen arteko eskumen banaketa aldatzeko baimenik ematen, autoritate autonomiko zehatzak euren funtzioen egikaritzan ordezkatzeko baizik. EKren 149.1.29 eta 148.1.22 artikuluei jarraiki, AAEE batzuek arlo honetan eskuduntza partekatua duten heinean, neurri hau konstituzio kontrakotzat hartu behar da, Ridao Martínek (2019: 195) adierazten duen moduan, segurtasun publikoaren arloko eskumen banaketaren erregimena eta koertzio estatala aplikatzeko kontuan izan behar den proportzionaltasun printzipioa errespetatzen ez baitzuten.

Jarraian, Kataluniako Parlamentuari aplikagarri zitzaizkion neurrien konstituziokotasunaren azterketa egin behar da.

Lehenik eta behin, Estatuko Presidenteari Kataluniako Parlamentua disolbatzeko eta hauteskunde deialdia egiteko ematen zitzaion baimenari dagokionez, 143/2018 errekursoak oinarrizko printzipioen eta obligazio konstituzionalen urratzeak antzematen zituen.

Honi jarraiki, EKren 152.1 artikulua AAEEen autogobernurako eskubidea ezartzen du; eta, EKren 151. artikulua adierazten duen eta arestian azaldu dugun moduan, AAEEek erregimen parlamentarioaren bitartez kudeatzen dute autogobernu hori. Horregatik, Kataluniako Autonomia Estatuaren 75. artikuluari jarraiki, Generalitateko Presidenteari dagokio Kataluniako legegintza-ganberaren disoluzioa egikaritzea.

Beraz, neurri hauek EKren 2. artikuluan aurreikusten den eta 152.1 artikulua bitartez egikaritzen den autonomia printzipioa urratzen zuten, baina baita ere mailaketa eta beharrezkotasun printzipioak, 143/2018 errekursoaren iritziz lehenengo Kataluniako Generalitateak Parlamentua ekimen propioz disolbatu ahalko lukeelako, EKren 155. artikulua aplikatu barik eta Kataluniako sistema instituzionaletik at dagoen autoritate baten esku-sartzerik gabe.

Amaitzeko, Kataluniako Parlamentuari eragiten zioten neurriak ditugu, zeintzuek, 143/2018 errekursoaren arabera, Parlamentuaren ahalmen propioei mugak ezartzen zizkieten, erregimen parlamentarioa efektu barik utziz, horiek izanik: Generalitateko

Presidentea izendatzeko ahalmena etetea, Generalitateko Gobernua kontrolatzeko ahalmena etetea eta bultzada politikoko eta deliberazioko ahalmenak mugatzea.

Kasu honetan ere, urratzen ziren artikulua berak ziren, 143/2018 errekurtsok adierazten zuen moduan: EKren 152. artikulua, artikulua honek AAEEen autogobernurako eskubidea ezartzen duen heinean, neurriek Kataluniako AAEEren autogobernurako eskubidea urratzeagatik, EKren 23. artikulua, Parlamentuko kideen jarduteko ahalmenaren legez kontrako mugatzearen bitartez haien parte-hartze politikorako eskubidea eta ordezkatzeko zituzten herritarren boto eskubidea urratzeagatik, eta EKren 2. artikuluan aurreikusten den autonomia printzipioa, nahiz eta Parlamentua mantendu, Estatuko Gobernuaren menpe jartzen baitzuen.

Horretaz gain, 143/2018 errekurtsok adierazten zuen neurriek ez zutela beharrezkotasun eta autonomiaren gutxiengo interbentzioaren printzipioak errespetatzen, Parlamentuaren ekintzak konstituzio kontrolaren bitartez berrikusi zitezkeen heinean, ez-betetzeek ezin zutelarik hain ez-ohikoa den EKren 155. artikulua aplikazioa justifikatu.

Amaitzeko, aipatzekoa da Bernardí i Gilek (2019: 26) zeharkako neurri buruz egiten duen azterketa; batez ere Senatuaren Akordioan aurreikusten ziren neurriak betearazteko Estatuko organoei beharrezkoak ziren ekintza, ebazpen zein xedapen guztien gaineko interbentzioa burutzea bermatzen zizkien ahalmenei dagokionez. Autorearen arabera, neurri hauen aplikazioak EKren 1.1 artikuluan aurreikusten den askatasun printzipioaren eta segurtasun juridikoaren eta botere publikoen arbitrarietatearen arauen aurka egiten zuen.

Ondorioz, Albertí Rovirak (2018: 7) adierazten duen moduan, EKren 155. artikulua Senatuak onartu ditzakeen neurriek bi muga argi dituztela adierazten du. Alde batetik, EKren 155. artikulua ezin du EK edota marko konstituzionala eraldatu; hortaz, ezin da jada ezarrita dauden lurralde antolaketari buruzko erregelak aldatzeko erabili (nahiz eta autoreak kuestio zehatzetarako erregimen berezi bat aplikatu dezakeela aurreikusi, horiek behin behinekoak izan beharko direlarik eta horien erabilera justifikatzen duen helburua betetzera bideratuta egon beharko direlarik). Beste alde

batetik, neurriek ezin izango dute pertsonen EKn aurreikusitako eskubide zein askatasunei eragin.

Hortaz, atal honetan ikus daitekeen moduan, urriaren 27ko Senatuaren Akordioan EKren 155. artikulua aplikazioa egikaritzeko neurrien gaineko konstituzio kontrakotasuna agerikoa da; nahiz eta, bai Kataluniako Generalitateko Parlamentuak bai Diputatuen Kongresuko talde batek tarteratutako errekursoei erantzuna ematen zieten KAren 89/2019 eta 90/2019 sententziek konstituzio kontrakotasun aldarrikapen horien aurka ebatzi.

4.4. Konstituzio Auzitegiaren erantzuna: 89/2019 eta 90/2019 sententziak

Atal honetan, bai Kataluniako Parlamentuak bai Diputatuen Kongresuko talde batek Senatuaren 2017ko urriaren 27ko Akordioaren aurka tarteratutako konstituzio kontrakotasun errekursoak ebazten dituzten bi sententziak aztertuko dira.

Lehenengoa, 2019ko uztailaren 2ko KAren 89/2019 sententzia, zeinak Diputatuen Kongresuko Unidos Podemos-En Comú Podem-En Marea talde parlamentarioko 50 diputatuk baino gehiagok tarteratutako konstituzio kontrakotasun errekursoari erantzuna ematen zion; eta bigarrena, 2019ko uztailaren 2ko KAren 90/2019 sententzia, zeinak Kataluniako Parlamentuak tarteratutako konstituzio kontrakotasun errekursoari erantzuten zion.

Cavero Gómezek (2019: 509) adierazten duen moduan, nahiz eta konstituzio kontrakotasun errekurso ezberdinak ebazten zituzten bi sententzia izan, KAren 90/2019 sententziak, bere 3. oinarri juridikoan zuzenean KAren 89/2019 sententziara bidaltzen gaitu, haren hitzetan, beharrezkoak ez diren errepikapenak ekiditeko. Hori dela-eta, atal honetako analisia KAren 89/2019 sententzian oinarrituta burutuko da.

Lehenik eta behin, aurkaratzeko arrazoi konkretuen analisia egin baino lehen, KAren 90/2019 sententziak EKren 155. artikulua prozeduraren naturari buruzko zehaztasun batzuk egin zituen.

Sententziaren 3. oinarri juridikoan ebatziko ziren gaien zerrenda eta ordena zehaztu zen, adieraziz lehenengo prozedurazko akatsak aztertuko zirela, gero konstituzio kontrakotasunaren arrazoi sustantiboak, eta azkenik, Akordioaren neurri konkretu batzuei buruzko konstituzio kontrakotasuna.

Gaien zerrenda aztertu baino lehen, beharrezkoa da bi sententzien 4. oinarri juridikoa, EKren 155. artikulua prozeduraren naturari buruzkoa, aipatzea. García Rocaren (2019: 506-508) aburuz, sententziek EKren 155. artikuluan aurreikusten den agindu konstituzional honetan AAEEtako organoen jardueraren kontrolaren modalitate bat definitu zutela aldarrikatzen du, modalitate hori ez-ohikotzat kalifikatu behar delarik, KAren 2016ko martxoaren 3ko 41/2016 sententziak adierazten zuen moduan, izugarri kualifikatuak diren ez-betetze konstituzionalei aurre egiteko balio baitu. Gainera, azpimarratu zuten AAEEen gainean Gobernuari eta Senatuari eskaintzen zaien koertzio prozedura hau ezin dela eskumen banaketen baitan bermatzen den AAEEen kontrolarekin nahasi; izan ere, koertzio mota honek lurralde historikoen autonomia oinarritzen duen batasun printzipioaren errespetua bermatzeko lurralde autonomikoei ezarri ahal zaizkien mugak baimentzen baititu.

Aurrekotik, sententziek ondorioztatu zuten prozedura hau AAEEren ekintza baten bitartez EK edo bestelako obligazio legalen ez-betetzea ematerakoan edota Espainiako interes orokorra larriki kaltetzerakoan erabili daitekeela, egoera berrezartzeko bestelako bideak existitzen ez direla frogatu eta gero. Gainera, 3.3.2 atalean aipatu dugun moduan, obligazio konstituzional edo legalen ez-betetzea Espainiako interes orokorraren aurka egitearekin bat joan daitekeela adierazi zuten, Espainiako interes orokorraren aurka joatea, ordea, ezin delarik Zuzenbidetik at salatu; hau da, irizpide politikoen baitan. Hortaz, Requejo Pagések (2020: 239-240) aurkezten duen moduan, KAk egitatezko supostuen erabilera EK modu kontziente eta sistematiko baten baztertzeko borondatea erakusten duten ekintzetara mugatu du.

Horretaz gain, García Rocak (2019: 507) EKren 155. artikulua aplikazioak muga batzuk dituela adierazten du, helburua ordena konstituzionala berrezartzea edota erakunde sistemaren funtzionamendu egokia bermatzea beharrezkoak diren neurriak ezartzea izanik, neurri horiek aldi baterakoak izan behar direla aldarrikatuz, AAEE bat

ezabatu gabe, haren autonomia behin betiko mugatu gabe eta hiritarren oinarrizko eskubideak mugatu gabe.

Behin hau aztertuta, KAren 89/2019 sententziaren 5. eta 8. oinarri juridikoen artean prozedurazko akatsei buruz ebatzi egiten zen.

Gobernuaren zein Senatuaren partetik errekerimendua aintzat ez hartzeari dagokionez, sententziaren 6. oinarri juridikoan adierazi zen, lehenik eta behin, beharrezkoa zela EKren 155. artikulua aplikatu ahal izateko egitatezko kasuak eman ziren edo ez aztertzea. Honi jarraiki, alde batetik EKren 9.1 artikulua urraketa aurreikusi zuen, artikulua horrek botere publiko guztiak EKren menpe daudela eta euren jarduerak EKri egokitu behar dituztela adierazten zuelarik. Gainera, sententziak KAren hainbat sententziari kasurik egin ez zitzaizkion azaldu zuen, besteak beste konstituzio kontraketat hartu ziren 19/2017 eta 20/2017 Legeei dagokionez, erreferendumerako deialdia egiten zuen 139/2017 eta hori garatzeko arau osagarriak definitzen zituen 140/2017 Dekretuei dagokionez eta erreferenduma aurrera eramateko burututako ekintzei dagokionez.

Beste alde batetik, Espainiako interes orokorraren aurka egin zela salatu zuen, Espainiako batasun eta osotasun lurraldetar zein autonomikoa kolokan jartzeagatik, hitzez hitz: *“Se pretendía así la ruptura del orden constitucional, ignorando que una comunidad autónoma no es un ente soberano, sino que, por el contrario, está sometido a la Constitución, al estatuto de autonomía y al resto del ordenamiento jurídico”*.

Behin hori adierazita, sententziak errekerimendua aintzat hartu ez izanari buruz ebatzi zuen 7. a) oinarri juridikoan. Cavero Gómezek (2019: 511-512) azaltzen duen moduan, nahiz eta Kataluniako Generalitateko presidentek errekerimenduaren galderari erantzun, zeinetan adierazten zuen elkarrizketa prozesu bat hasteko helburuz Kataluniako herriak erreferendum bitartez onartutako independentzia eten egin zuela, ez zuen independentzia aldarrikapen hori baliogabetu ezta prozesu konstituziogilearen baitan burututako ekintza guztien etetea agindu. Hau da, KAK ondorioztatu zuen Kataluniako Generalitateko presidentearen erantzunak errekerimenduak galdatzen zituenetik at zeudela.

Are gehiago, 143/2018 errekursoak aldarrikatzen zuen aldean arteko aurretiazko elkarrizketari dagokionez, KAK adierazi zuen EKren 155. artikuluan aurreikusitako ez-ohiko bide hau ez zutela aurretiazko elkarrizketa saiakerek baldintzatzen, elkarrizketak ezin baitira arau edo printzipio juridikoen loturari buruzkoak izan, hitzez hitz: *“Este Tribunal no puede dejar de reconocer el valor, en general, del diálogo entre gobernantes y titulares de los poderes públicos como soporte vital de la democracia constitucional [STC 42/2014, de 25 de marzo, FJ 4.b], pero ese diálogo no puede versar sobre la sujeción o no a las reglas y principios jurídicos de todos cuantos ejercen poder público, sujeción sin la cual no cabría hablar de estado de derecho”*.

Errekerimenduaren eta Gobernuaren Akordioaren arteko inkongruentziei dagokionez, García Rocak (2019: 509) adierazten duen moduan, KAK aldarrikatu zuen hasierako errekerimenduak ez ziola bakarrik independentzia aldarrikapenari erreferentzia egiten, baita Espainiako Estatuaren batasuna kolokan jartzen zuten zenbait ekintzei ere.

Honetaz aparte, 143/2018 errekursoak inkongruentzia errekerimenduan exijitutakoaren eta Senatuaren Akordioan onartutako neurrien artean sumatu zuen ere. Izan ere, KAK, 8. b) oinarri juridikoan adierazi zuen EKren 155. artikulua ez diola Gobernuari errekerimenduan aplikatuko diren neurriak definitzea inposatzen. Gainera, prozeduraren hasieran AAEE bati galdatu ahal zaizkion ekintzak Akordioaren onarpenaren baitan beharrezkotzat jotzen diren neurriekin konparatu ezin direla azaldu zuen, bigarren fasean autonomiaren esku-hartze hertsatzailea aurrera eramaten den heinean, zeinaren bitartez AAEE baten obligazio konstituzional zein legezkoak betearaztea edota Espainiako interes orokorra kaltetzen duen ekintza larria egikaritzeari uztea bilatzen delarik.

Prozedurazko akatsekin amaitzeko, eraturako Batzorde Bateratuan Kataluniako Generalitateko presidentek izendatutako ordezkariaren parte-hartzeari buruzko Senatuaren ezezkoari dagokionez, KAren 89/2019 sententziaren 9. b) eta KAren 90/2019 sententziaren 5. b) oinarri juridikoetan adierazi zen Senatuak informazio egokia eta osoa eskuratzeko tramite moduan ulertu behar zela, eta ez Generalitateko presidentek bere argudioak aurkezteko beste aukera baten moduan, Requejo Pagésekin (2020: 243) adierazten duen moduan, ordezkariak alegazio zein dokumentuen ekarpena mugatzen zelarik, horrek ez zekarrelarik bilkuran mintzatzeko aukerarik. Horretaz gain, KAK

adierazi zuen Kataluniako Generalitatearen zein haren presidentearen bermeak handitu zirela, Senatuaren Erregelamenduaren 189. artikulua aurreikusten ez zuen arren, presidenteari Batzorde Bateratuan edota Senatuaren Osoko Bilkuran parte-hartzeko baimena eman baitzitzaion.

Arrazoi guzti hauek direla-eta, KAren 89/2019 eta 90/2019 sententziek ez zuten koertzio estatala egikaritzeko prozesuan inolako prozedurazko akatsik ikusi.

Akats materialei dagokionez, sententziek analisia bi atal ezberdinen baitan burutu zuten; alde batetik, EKren 155. artikulua interpretazio orokor bat burutuz, eta beste alde batetik, Senatuaren Akordioan onartutako neurri zehatzen azterketa burutuz.

KAren 90/2019 sententziaren 6. oinarri juridikoak EKren 155. artikulua interpretazio orokorra burutu zuen. Honi jarraiki, EKren 155. artikulua ez du bere baitan hark aurreikusten duen koertzio estatala egikaritzeko neurri konkretuak definitzen; izan ere, beharrezkoak diren neurriak aplikatuko direla adierazterakoan, organo konstituzionalei marjin bat eskaintzen zaie egoera bakoitzaren arabera neurriak definitzeko.

Gainera, beharrezko neurrien baitan ordezkio izaera dutenak barneratu zitezkeela aldarrikatu zuen, horien bitartez Gobernu Zentrala eskumen autonomikoko jardura edo funtzioetan subrogatzea edota AAEEren organo jakin batzuen okupazioa burutzea ahalbidetuz.

Ondoren, KAren 89/2019 sententziaren 11. zein 90/2019 sententziaren 6. oinarri juridikoek interbentzio horren helmen eta mugen gaineko zenbait balioespen egin zituzten.

Lehenik eta behin, koertzio estatalaren helburua AAEEen autonomia printzipioa konstituzio zein estatutu esparruan barneratzea da, horretarako ezinezkoa delarik estatutuaren behin betiko indargabetzea edota autonomiaren behin betiko etetea.

Horretaz gain, sententziek, aplikatuko diren neurrien beharrezkotasunaren gain zenbait argibide eman zituzten. Izan ere, 89/2019 sententziak, 11. b) oinarri juridikoan

horiek egokienak eta kalte gutxien sortzen dutenak izatearen beharra alde batera utzi zuen. Izan ere, EKren 155. artikulua baita ezarritako neurrien beharrezkotasuna ez zuen proportzionaltasun printzipioaren baita dagoen beharrezkotasun judizioarekin lotu.

Gainera, printzipio honi dagokionez, KAren 2016ko abenduaren 15eko 215/2016 sententziak beste arau konstituzionalen baita aplikatu behar dela aldarrikatu zuen, ez arau konstituzional autonomo moduan, hitzez hitz: *“El principio de proporcionalidad no constituye en nuestro ordenamiento un canon de constitucionalidad autónomo, cuya alegación pueda producirse de forma aislada respecto de otros preceptos constitucionales. Es un principio que cabe inferir de determinados preceptos constitucionales, siendo en el ámbito de los derechos fundamentales en el que normalmente resulta aplicable, y como tal, opera como un criterio de interpretación que permite enjuiciar las posibles vulneraciones de concretas normas constitucionales”*.

Honi jarraiki, Cruz Villalónek (2020: 34-35) adierazten duen moduan, KAK, Kataluniako prozesuari dagokionez, neurriak EKren 155. artikulua aldarrikatzen duen neurrien beharrezkotasunaren baita definitu behar direla defendatu zuen.

Azkenengo ideia honi dagokionez, KAren 2010eko ekainaren 28ko 31/2010 sententziaren 6. oinarri juridikoan adierazi zen moduan, beharrezkotasun printzipio hori KAri ezartzen zaion muga juridikoa litzateke. Horren bitartez, KAK Gobernuak eta Senatuak EKren 155. artikulua aplikazioaren baita ezarri dituzten neurriak definitzerakoan burututako judizioa epaitzen du, baina ez ditu epaitzen neurriak bere horretan, beste bi organoen irizpide politikoa ordezkatu gabe eta bestelako alternatiba batzuk proposatu gabe.

Are gehiago, sententziek aldarrikatu zuten Senatuak onartutako neurrien ezartze eta betearazpena Gobernuari zegokiola, baina ez EKren 97. artikulua bermatzen dizkion egitekoen baita, baizik eta EKren osotasunaren eta bertatik ondorioztatzen den antolaketa lurraldetarraren bermatzailea den konstituzio organo moduan. Hala ere, Gobernuak Estatuaren zein AAEEren legeen eta Senatuaren Akordioan erabakitakoaren baita jokatu beharko du, haren egitekoak kontrol judizialaren bitartez gainbegiratu ahal izango direlarik. Gainera, Gobernuak aurrera eramandako neurrien bitartez antolaketa

autonomikoaren aldakuntza ematekotan, horrek EKren 2. artikuluan aurreikusitako autonomia printzipioarekin bat egin beharko du.

Amaitzeko, sententziek akats materialen gain egin zuten 2. analisia Senatuaren Akordioan ezarritako neurri konkretuen gainekoa da.

Generalitateko presidente eta presidenteordeari eta Gobernu Kontseiluari bideratutako neurriei dagokionez, errekurtsioek aldarrikatu zuten horiek EKren 2, 147 eta 152. artikuluen baitan dagoen autonomia printzipioa eta 23.2 eta 24.2 artikuluen baitan dauden kargu publikoen eta herritarren oinarrizko eskubideak urratzen zituztela. Hala ere, 89/2019 sententziaren 12. oinarri juridikoan adierazi zen autonomia printzipioa eta oinarrizko eskubideak bermatzen dituzten arauak alde batera utzi zitezkeela, ageriko modu baten urratua izan den eta ohiko bideen bitartez berrezarri ezin daitekeen ordena konstituzionala berrezartzeko helburuarekin, hitzez hitz: *“La magnitud del incumplimiento determina que, en este caso, no baste con la impartición de instrucciones a las autoridades autonómicas (...), ni tan siquiera con la asunción puntual de competencias en algunos de los actos que ordinariamente deben realizar o en algunas de sus funciones. Se hace imprescindible la sustitución en el ejercicio de las funciones de esos órganos por el tiempo necesario y preciso para reponer la legalidad constitucional y estatutaria vulnerada”*.

Parlamentuko disoluzioa agintzen zuten neurriei dagokionez, errekurtsioak EKren 2 eta 152. artikuluetan aurreikusten den Gobernu autonomikoaren erregimen parlamentarioaren aurkakoak direla aldarrikatu zuen. 89/2019 sententziaren 13. oinarri juridikoan ordea, EKren 155. artikulua baitan aurreikusitako prozeduran barneratzen direla adierazi zen, neurri hori beharrezkotzat hartzekotan eta disoluzio hori denboran mugatua izatekotan (6 hilabetekoa kasu honetan).

Generalitateko Administrazioari ezartzen zitzaizkion neurriei konkretuei dagokionez, sententziak kasuz kasu aztertu zituen.

Erakunde publikoen erabakien aurretiazko baimenari buruz, errekurtsioek legezketasun eta hierarkia normatiboaren printzipioak urratzen zituela aldarrikatu zuten, KAK, 89/2019 sententziaren 14. a) oinarri juridikoan konstituzio kontrakoa ez dela

adierazi zuelarik, Senatuaren Akordioaren baitan ezarritako neurri hau lege-lerruneko izaera duen eta koertzio estatala egikaritzeko beharrezko neurritzat hartzen den heinean.

Akordioaren aurkakoak ziren xedapen, egintza eta ebazpen autonomikoen erabateko deuseztasunari dagokionez, demandatzaileen arabera, EKren 9.3 artikuluan aldarrikatzen den segurtasun juridikoaren printzipioa urratu zen, deuseztatze horien agintzea Estatuko eta AAEEko ordenamenduetako oinarrizko arauen baitan burutu behar zelako, eta ez Senatuaren Akordioaren bitartez. Hala ere, 89/2019 sententziak, 14. b) oinarri juridikoan 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 g) artikulua aipatu zuen, zeinetan adierazten zen lege-lerruneko arau batek Administrazio Publikoen ekintzen gaineko erabateko deuseztasuna aldarrikatu dezakeela.

Azkenik, Akordioaren aurkakoak ziren eta Kataluniako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren xedapen eta egintzen efektu juridikoen ukatzeari buruz, 89/2019 sententziak, 14. c) oinarri juridikoan, onartu egin zuen Senatuak Gobernuari horiek kontrolatzeko ahalmena ematea, arestian aipatu moduan, Senatuaren Akordioak lege-lerruneko izaera baitu. Hala ere, behin Kataluniako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, EKren 9.3 artikuluko publizitate printzipioari jarraiki, sententziak ezinezkotzat hartu zuen argitalpen hori efektu juridikorik gabe uztea, botere publikoak xedapen eta egintza horien kontrola aldeztu aurretik burutu behar zuelarik: *“Es responsabilidad del mismo poder público velar con diligencia por la efectividad de los controles administrativos previos en orden a lo que pueda o no acceder a un diario oficial, pero ante la eventualidad de que tales controles se eludieran o resultaran inefectivos, la seguridad jurídica (art. 9.3 CE) impide que el remedio fuera el que tal publicación se tuviera por no verificada”*. Beraz, E.3 neurria konstituzio kontraketatzat hartu zuen.

Ondoren, segurtasuna eta ordena publikoari buruzko neurriei buruz, errekurtsioek EKren 155. artikulua AAEEen eta Estatuaren arteko eskumen banaketa aldatzeko baimenik ematen ez duela aldarrikatu zuten, eta beraz, Kataluniako polizia autonomikoa ezin zela Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoengatik ordezkatu. KAren 89/2019 sententzia, 15. oinarri juridikoan, ideia honen aurka agertu zen, EKren 155. artikulua, beharrezkotasun printzipioari jarraiki, AAEEen eskumenak mugatu edo aldatu ditzakeela baimentzen zuela adieraziz.

Errekurtsoek aldarrikatutako Senatuaren Akordioko neurrien azterketarekin amaituz, Kataluniako Parlamentuari bideratutako neurriak ere konstituzio kontraktotzat hartu ziren, EKren 152. artikulua definitzen duen erregimen parlamentarioari eta 23. artikulua parte-hartze politikorako eskubideari aurka eginez.

Generalitateko presidentea izendatzeko ahalmenari buruz, 89/2019 sententziaren 16. a) oinarri juridikoak Presidentearen eta Gobernuko gainerako kideen kargu-gabetze neurriaren ondorio logikotzat hartu zuen. Gainera, 16. b) oinarri juridikoan Kataluniako Gobernuak kontrolatzeko ahalmena Kataluniako Gobernuak berak egikaritzea zentzugabekotzat hartu zen, Senatuak izendatu beharreko organoak egikaritzea aldarrikatuz. Amaitzeko, 16. c) oinarri juridikoak ildo bera jarraitu zuen, adieraziz Kataluniako Parlamentuak bultzada politiko eta deliberaziorako ahalmena egikaritzen jarraitzea neurriekin bilatu nahi zen helburuaren kontrakoa zela.

Ondorioz, KAren 89/2019 eta 90/2019 sententziak Kataluniako Parlamentuak eta Diputatuen Kongresuko talde batek ezarritako konstituzio kontraktotasun errekurtsoen aurka agertu ziren, 2017ko urriaren 27ko Senatuaren Akordioan ezarri ziren neurriak bere osotasunean onartuz, E.3 neurria izan ezik, sententziek, EKren 9.3 artikulua aldarrikatzen duen publizitate printzipioari jarraiki, jada argitaratutako xedapen zein egintzak efektu juridikorik gabe uztea konstituzio kontraktotzat hartu baitzuten.

5. Ondorioak

Ikusi dugun moduan, Espainiako Estatu estatua bateratu bezala definitua izan da bere historia konstituzionalaren hasieratik. Honi jarraiki, 1978. urteko EKk Espainiako Estatuaren izaera bateratuaren eta herritartasun eta eskualde ezberdinen autonomia eskubidearen oinarria ezartzen du, eskubide hori nazio espainiarraren batasun hautsiezinaren baitan kokatuz eta beraz, AAEEen eta Estatu Zentralaren eskumenean banaketa definituz.

Hala ere, AAEEaren Estatu Zentralarekiko dituen betebeharren ez-betetze larriak betearazteko, EKren 155. artikulua koertzio estatalaren figura aurkezten du, 1949.

urteko Alemaniako Bonn Legearen 37. artikulua aurreikusten duen koertzio federalean oinarrituta.

1978. urtean EK sortu zenetik 2017era arte ez da inoiz EKren 155. artikulua aplikatu. Hori dela-eta, doktrina artikulua definitzen saiatu izan da. Ildo honetatik, koertzio estatalak ordenamendu konstituzionalaren aurkakoa den AAEE baten portaera bat zuzentzeko helburua du, hura aplikatzeko egitatezko kasuak legezko obligazio zein obligazio konstituzionalen ez-betetzea eta Espainiako interes orokorraren aurka joatea izanik. Aipatzekoa da koertzio estatala *ultima ratio* moduan aplikatu behar dela; hau da, autogobernurako bateragarriak diren gainerako kontrolerako aukerak eraginkorrak ez izatekotan. Gainera, artikulua honek koertzio estatala burutzeko prozedura bat aurreikusten du, zeinaren arabera Gobernu Zentralak egoera berrezartzeko beharrezkotzat hartzen dituen neurriak planteatuko ditu, Senatuak horiek onartu edo ukatuko dituelarik.

Lanean zehar aztertu izan den moduan, Espainiako interes orokorraren aurka joatearen egitatezko kasua guztiz politizatua dago, honen bitartez koertzio estatalaren aplikazioa ez baita legezko ez-betetze edo ez-betetze konstituzional batean oinarritu behar, Gobernuaren iritzia araberakoa izanik. Nahiz eta jurisprudentziak egitatezko kasu hau beste egitatezko kasutik banatuta interpretatu behar ez dela ondorioztatu, honen ezabatzea beharrezkoa da, EKren 155. artikulua aplikazioaren justifikazioa iritzi politikoek baldintzatu ez dezaten.

Azaldu moduan, artikulua hau 2017. urtean aplikatu zen lehenengo aldiz, Kataluniako Generalitateak bultzatutako prozesu independentistaren baitan, zeinak Kataluniako herritarrak erabakitze eskubidearen alde mobilizazioa eragin zuen, mobilizazio horietako batzuk Estatu Zentralak agintekeriaz aurre egin zielarik.

Testuinguru honetan, 2017ko urriaren 27ko Senatuaren Akordioaren bitartez koertzio estatala egikaritzen zuten neurriak onartu ziren; hala nola, Gobernuaren kideen kargu-gabetzea eta Kataluniako Parlamentuaren disoluzioa. Neurri hauen aurka, bai Kataluniako Parlamentuak bai Diputatuen Kongresuko 50 diputatuk baino gehiagok konstituzio kontrakotasun errekursoak tarteratu zituzten; EKren 155. artikulua aplikatzeko betekizun formalak eta materialak ez errespetatzeagatik.

KAk, 89/2019 eta 90/2019 sententzien bitartez prozesu osoan zehar Gobernu Zentralak burututako ekintzen zein ezarritako neurrien konstituzio kontrakotasuna ukatu zen, Kataluniako Generalitateak prozesu independentistaren baitan burututakoa EKren eta legeetan definitutakoaren kontrakoa zela adieraziz. Honen bitartez, EKren 155. artikularen aplikaziorako jurisprudenzia finkatu zen.

Hala ere, ezinezkoa da esatea EKren 155. artikularen aplikazioaren bitartez Kataluniako prozesu independentista konpondu dela. Izan ere, garrantzia handiko uzi hau koertzio estatalak aurreikusten duen bitartekoen bidez konpondu daitekeen ustea guztiz zentzugabekoa iruditzen zaigu. Gure ustez, artikulua honen aplikazioak Konstituzioan onartutako eredu territorialaren mugak agerian utzi ditu, ez baitu gaur egun identitate propioa daukaten eskualdeen ezinegonei erantzuna emateko balio. Gainera, ezinezkoa da gaur egungo EKk Kataluniako Parlamentuak Diputatuen Kongresuarekin adostutako eta Kataluniako gizarteak erreferendum bitartez onartutako Espainiako Estatuan integratzeko modua ez onartzea. Hori dela-eta, beharrezkoa da EKren erreforma bat planteatzea, gaur egungo testuinguruan guztiz zaharkitua geratu baita.

6. Bibliografia

Liburuak eta aldizkariak

Aja Fernández, Eliseo et al. (1985). *El sistema jurídico de las Comunidades Autónomas*. Madril: Tecnos.

Albertí Rovira, Enoch (1992). “Estado autonómico e integración política”. *Documentación Administrativa*, (232-233), 223-246.

_____ (2018). “Cuestiones constitucionales en torno a la aplicación del artículo 155 CE en el conflicto de Cataluña”. *Revista d'estudis autonòmics i federals*, (27), 1-23.

Álvarez Álvarez, Leonardo (2016). “La coerción estatal del art. 155 CE en la estructura del Estado autonómico”. *Teoría y realidad constitucional*, (38), 277-204.

Arroyo Gil, Alfonso (2015). “Unidad, lealtad y coerción federal (o estatal) en Alemania y España”. *Revista Jurídica Universidad Autónoma de Madrid*, I, (31), 51-70.

Ballart Hernández, Xavier (1987). *Coerció estatal i autonomies. Estudi de l'article 155 de la Constitució de 1978*. 8, 1. Bartzelona: Escola d'Administració Pública de Catalunya.

Bar Cendón, Antonio (2016). “El proceso independentista de Cataluña y la doctrina jurisprudencial: una visión sistemática”. *Teoría y realidad constitucional*, (37), 187-220.

Bassols Coma, Martín eta Serrano Alberca, José Manuel (1982). “El artículo 149 de la Constitución en relación con el artículo 150.2: análisis de la delegación en materia de las competencias estatales exclusivas”. *Revista de administración pública* (97), 31-72.

Bernardí i Gil, Xavier (2019). “L’aplicació de l’article 155 de la Constitució espanyola al Govern i l’Administració de la Generalitat de Catalunya”. *Revista catalana de dret públic* (especial), 21-44.

Boix Palop, Andrés (2017). “El conflicto catalán y la crisis constitucional española: una cronología”. *El cronista del estado social y democrático de Derecho*, (71-72), 172-181.

Caamaño Domínguez, Francisco (2020). “Estado autonómico y resiliencia constitucional. Las singularidades del art. 155 CE y la experiencia de su control”. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (120), 289-312.

Calafell Ferrá, Vicente Juan (2000). “La compulsión o coerción estatal (estudio del artículo 155 de la Constitución española)”. *Revista de Derecho Político*, (48-49), 99-146.

Cavero Gómez, Manuel (2019). “La aplicación del artículo 155 de la Constitución a la comunidad autónoma de Cataluña. Comentario a las sentencias del Tribunal Constitucional 89/2019, de 2 de julio, y 90/2019, de 2 de julio. Recursos de inconstitucionalidad núms. 5884-2017 y 143-2018. (BOE núm. 192 de 12 de agosto de 2019)”. *Revista de las Cortes Generales*, (107), 507-519.

Cruz Villalón, Pedro (1980). *El estado de sitio y la Constitución: la constitucionalización de la protección extraordinaria del Estado (1789-1878)*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

_____ (1981). “La protección extraordinaria del Estado”, García de Enterría Martínez-Carande, Eduardo (konp.) eta Predieri, Alberto (konp.). *La Constitución española de 1978*. 2. Madrid: Civitas.

_____ (1984). “Coerción estatal”, González Encinar, José Juan (konp.) *Diccionario del sistema político español*. Madrid: Akal.

_____ (2020). “Experiencia y jurisprudencia de la coerción estatal (artículo 155 CE)”. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (120), 15-41.

De Miguel Bárcena, Josu (2018). “El proceso soberanista ante el Tribunal Constitucional”. *Revista española de derecho constitucional*, (113), 133-166.

García Roca, Francisco Javier (2019). “Il tempo moderato de la intervención coercitiva del Estado (artículo 155 CE) en Cataluña: un comentario a las SSTC 89 y 90/2019, en

particular, proporcionalidad y test de necesidad o razonabilidad de las medidas”. *Teoría y realidad constitucional*, (44), 503-524.

García Torres, Jesús (1984). “El artículo 155 de la Constitución española y el principio constitucional de la autonomía”, Ministerio de Hacienda (konp.). *Organización territorial del Estado (Comunidades Autónomas)*. Vol. II. Madrid: Instituto de Estudios Fiscales.

Gil-Robles Gil-Delgado, José María (1999). “Artículo 155: El control extraordinario de las Comunidades Autónomas”, Alzaga Villaamil, Óscar (konp.). *Comentarios a la constitución española de 1978*. Tomo XI. Madrid: EDERSA.

Gómez Orfanel, Germán (2005). “La coerción federal en el derecho comparado”. *Cuadernos de Derecho Público*, (26), 41-60.

_____ (2020). “Las medidas y la aplicación del artículo 155 CE a Cataluña”. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (120), 343-376.

Lafuente Balle, José María (2018a). “El art. 155 de la Constitución española: examen doctrinal y comparado”. *Revista de Derecho Político*, (102), 79-121.

_____ (2018b). “El art. 155 de la Constitución española (el Acuerdo del Senado)”. *Revista de Derecho Político*, (103), 77-116.

Losada Trabada, Antón eta Pérez Royo, Javier (2018). *Constitución: la reforma inevitable. Monarquía, plurinacionalidad y otros escollos*. Barcelona: Roca Editorial.

Navajas Laporte, Álvaro (1983). “Unas reflexiones en torno a la interpretación del artículo 149 de la Constitución Española de 1978”. *Revista de estudios de la vida local*, (218), 233-260.

Perello Domenech, Isabel (1997). “El principio de proporcionalidad y la jurisprudencia constitucional”. *Jueces para la Democracia*, (28), 69-75.

Requejo Pagés, Juan Luis (2020). “Consideraciones generales en torno a las sentencias del Tribunal Constitucional 89/2019 y 90/2019, de 2 de julio”. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (120), 231-257.

Ridao Martín, Joan (2018). “La aplicación del artículo 155 de la Constitución a Cataluña. Un examen de su dudosa constitucionalidad”. *Revista Vasca de Administración Pública*, (111), 169-203.

Rodríguez de Santiago, José María eta Velasco Caballero, Francisco (1999). “Límites a la transferencia o delegación del artículo 150.2 CE”. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (55), 97-132.

Urías Martínez, Joaquín (2019). “El artículo 155 CE: alcance y límites de una excepción constitucional”. *Revista catalana de dret públic*, (especial), 101-114.

Vilajosana Rubio, Josep (2019). “El estado dual en España: contexto y justificación de la aplicación del artículo 155 CE”. *Revista catalana de dret públic*, (especial), 137-155.

Vintró Castells, Joan (2019). “L’article 155 de la Constitució: configuració jurídica general i aplicació a Catalunya”. *Revista catalana de dret públic*, (especial), 156-181.

Vírgala Foruria, Eduardo (2005). “La coacción estatal del artículo 155 de la Constitución”. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (73), 55-109.

Web orrialdeak eta liburu elektronikoak

Bacigalupo Sagesse, Mariano (2003). “Sinopsis artículo 150”. *Congreso de los Diputados [on-line]*, eskuragarri hemen:

<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=150&tipo=2>

[Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Garrido Mayol, Vicente (2003). “Sinopsis artículo 149”. *Congreso de los Diputados [on-line]*, eskuragarri hemen:

<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=149&tipo=2>

[Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Jiménez Asensio, Rafael (2017). “La aporía de la excepción constitucional: sobre el artículo 155 CE (y sus medidas)”, *La mirada institucional [on-line]*, eskuragarri hemen:

<https://rafaeljimenezasensio.com/2017/10/27/la-aporia-de-la-excepcion-constitucional-sobre-el-articulo-155-y-sus-medidas/> [Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Letamendia Belzunce, Francisco (1978). “Debate en la Comisión de Asuntos Constitucionales y Libertades Públicas”, *Trabajos Parlamentarios de la aprobación y reformas de la Constitución Española de 1978 [on-line]*, 3.415-3.416, eskuragarri hemen:

https://app.congreso.es/est_consti/ [Kontsulta eguna: 2022/02/09]

Torres Muro, Ignacio (2003). “Sinopsis artículo 161”. *Congreso de los Diputados [on-line]*, eskuragarri hemen:

<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=161&tipo=2>

[Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Egunkariko artikulak

Martínez Teruel, Guillem (2016). “2010. El año en que empezó todo. O, tal vez, el año en que acabó todo”. *ctxt*. Azaroaren 16a. Eskuragarri hemen:

<https://ctxt.es/es/20161116/Politica/9525/catalu%C3%B1a-proces-soberanismo-referendum.htm> [Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Pérez Royo, Javier (2021). “La banalización de la disolución del Parlamento”. *elDiario.es*. Azaroaren 18a. Eskuragarri hemen: https://www.eldiario.es/contracorriente/banalizacion-disolucion-parlamento_132_8503229.html [Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Público (2017). “Canarias, terreno de ensayo del artículo 155”. *Público*. Urriaren 9a. Eskuragarri hemen: <https://www.publico.es/politica/articulo-155-constitucion-canarias-terreno-ensayo-articulo-155.html> [Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Ríos Jaime, Daniel (2015). “Entrevista a Eduardo Vírjala, catedrático de Derecho Constitucional de la UPV”. *infoLibre*. Urriaren 29a. Eskuragarri hemen: https://www.infolibre.es/politica/articulo-155-gobierno-clase-medidas-disolver-autonomia_1_1118831.html [Kontsulta eguna: 2022/02/09].

Legedia

Nazio Batuen Erakundearen 1514 (XV) Erabakia, 1960ko abenduaren 14koa.

Nazio Batuen Erakundearen 2625 (XXV) Erabakia, 1970eko urriaren 24koa.

1978ko Espainiako Konstituzioa. *Boletín Oficial del Estado*, 1978ko abenduaren 29an, 311 zk.

1931ko Espainiako Konstituzioa. *Gaceta de Madrid*, 1931ko abenduaren 9an, 344 zk.

Alemaniko Bonn Legea. *Bundesgesetzblatt (Alemaniako Federazioaren Aldizkari Ofiziala)*.

Senatuaren Erregelamendua. *Boletín Oficial del Estado*, 1994ko maiatzaren 10ean, 114 zk.

6/2006 Lege Organikoa, uztailaren 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutua aldatzen duena. *Boletín Oficial del Estado*, 172 zk.

26/2010 Legea, 2010eko abuztuaren 3koa, Kataluniako erregimen juridikoari eta Administrazio Publikoen prozedurari buruzkoa. *Boletín Oficial del Estado*, 203 zk.

10/2014 Legea, irailaren 26koa, erreferendum gisakoak ez diren herri-galdeketei eta herritarren parte-hartzerako bestelako formei buruzkoa. *Boletín Oficial del Estado*, 64 zk.

39/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. *Boletín Oficial del Estado*, 236 zk.

129/2014 Dekretua, irailaren 27koa, erreferendum gisakoa ez den herri-galdeketarako deialdiari buruzkoa. *Diari Oficial de la Generalitat de Catalunya*, 6715A.

Ministroen Kontseiluaren PRA/1034/2017 Akordioa, 2017ko urriaren 27koa. *Boletín Oficial del Estado*, 260 zk.

5/X Erabakia, 2013ko urtarrilaren 13koa, Kataluniako herriaren subiranotasunaren eta erabakitze eskubidearen adierazpena onartzen duena. *Butlletí Oficial del Parlament de Catalunya*, 13 zk.

1/XI Erabakia, 2015eko azaroaren 9koa, 2015eko irailaren 27ko hauteskunde emaitzen ondorioz Katalunian hasitako prozesu politikoari buruzkoa. *Butlletí Oficial del Parlament de Catalunya*, 7 zk.

9/2008 Legea, ekainaren 7koa, bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziazio-prozesu bat irekitzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren iritzia eskatzeko herri-galdeketa bat deitzeko eta arautzekoa. *Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala*, 134 zk.

Jurisprudentzia

KAren 4/1981 sententzia, 1981eko otsailaren 24koa. *Boletín Oficial del Estado*, 47 zk.

KAren 32/1981 sententzia, 1981eko uztailaren 28koa. *Boletín Oficial del Estado*, 193 zk.

KAren 76/1983 sententzia, 1983ko abuztuaren 5koa. *Boletín Oficial del Estado*, 197 zk.

KAren 46/1990 sententzia, 1990eko martxoaren 15koa. *Boletín Oficial del Estado*, 85 zk.

KAren 147/1991 sententzia, 1991eko uztailaren 4koa. *Boletín Oficial del Estado*, 180 zk.

KAren 31/2010 sententzia, 2010eko ekainaren 28koa. *Boletín Oficial del Estado*, 172 zk.

KAren 42/2014 sententzia, 2014ko martxoaren 25koa. *Boletín Oficial del Estado*, 87 zk.

KAren 215/2014 sententzia, 2014ko abenduaren 18koa. *Boletín Oficial del Estado*, 29 zk.

KAren 31/2015 sententzia, 2015eko otsailaren 25koa. *Boletín Oficial del Estado*, 64 zk.

KAren 32/2015 sententzia, 2015eko otsailaren 25koa. *Boletín Oficial del Estado*, 64 zk.

KAren 138/2015 sententzia, 2015eko ekainaren 11koa. *Boletín Oficial del Estado*, 160 zk.

KAren 259/2015 sententzia, 2015eko abenduaren 2koa. *Boletín Oficial del Estado*, 10 zk.

KAren 83/2016 sententzia, 2016ko apirilaren 28koa. *Boletín Oficial del Estado*, 131 zk.

KAren 215/2016 sententzia, 2016ko abenduaren 15koa. *Boletín Oficial del Estado*, 17 zk.

KAren 90/2019 sententzia, 2019ko uztailaren 2koa. *Boletín Oficial del Estado*, 192 zk.

KAren 89/2019 sententzia, 2019ko uztailaren 2koa. *Boletín Oficial del Estado*, 192 zk.

AGren 66/1995 sententzia, 1995eko maiatzaren 8koa. *Boletín Oficial del Estado*, 140 zk.

Errekurtsoak

143/2018 Errekurtsoa, 2018ko urtarrilaren 8koa. *Boletín Oficial del Estado*, 36 zk.